

ttipi-ttapa

HERRIETAKO BESTAK BERTAN BEHERA

Irurita, Urdazubi, Almandoz, Berroeta, Arizkun, Saldias, Doneztebe, Erratzu, Elizondo...

Koronabirusa tarteko aunitz dira bestarik gabe gelditu diren herriak.

Eta zerrenda luzeagoa izanen da.



ONDIKOL

Egoera zailean ere lanerako gogoz

Bi hilabetez itxita egon ondok lanera itzuli da hainbat eta hainbat lagun. Ez da, ordea, denen kasua. / 8

SINADURAK



MIEL M.
ELOSEGI
IRURTIA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



IZASKUN
ZUBIALDE
GRAJIRENA / 4



ZUHAITZ
BELOKI
LEIZA / 4



ZOZKETA / 52



**«Azken 30 urteotan
bizikletaren transmisioan
izan den saltorik
handiena izanen da»**

Goi mailako errepideko
bizikletentzako kanbio elektriko
bat garatu du Mikel Zubietza
etxalartarrak bere lankidearekin.
eta 2022an merkaturatu
nahi dute. / 16

**Berako sortzaileen
lana ikusarazteko
Kultur Pilulak
egitasmoa abian** / 13

**Eskualdeko bortz
lagun hil edo
desagertu ziren
nazien eskuetan** / 20

LH

ERDI MAILAKO ETA
GOI MAILAKO ZIKLOAK

IRUDIA ETA SOINUA

Araututako formakuntza Iruñean
Lan-poltsa
Matrikulatzeko epea zabalik

CTL

formación
imagen•sonido
Tel. 948291756

ERRESERBATU ZURE PLAZA



Informa zaitez: info@ctl-online.com

BERAKO UDALAK

10.000 €

BONOETAN

ITXITA EGONDAKO BERTAKO KOMERTZIO TXIKI,
OSTALARITZA ETA ZERBITZUETAN GASTATZEKO



BONOA
zuk + 20€
udalak + 10€
zuk erosteko 30€

en

(e)n

BERA BIZIRIK!



TUREKIN ZAUDE?



bera
• merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarte
• asociación de comerciantes, hosteleros y empresas de servicios



BERAKO UDALA



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA

Gure onena

Ohiko bizimodua estutzeak jendea hobeki ezagutzeko balio dezake. Koronabirusa iritsi zenean, maskarak behar zirela edo ez zirela erotu gintuzten garaian, maskaren prezioa 2 eurotik 10 eurora igo zuten zenbait lekutan. Betikoa! pentsatuko duzue. Ez, ba! Aldi berean Aitziberrek entzun zuen Estitxu jostuna maskarak egiten ari zela

-Lau behar ditut, Estitxu, mesedez.

-Hemen dituzu.

-Zenbat da?

-Deus ez. Doan eman nahi ditut.

Alferrikakoa izan zen ordain-tzen saiatzea, jostunak ez baitzuen inondik ere kobratu nahi izan. Edurne, berriz, auzoko Miren adinekoaren etxera joan zen erosketak egiteko laguntzarik behar ote zuen galdetzeraz. Patxi boluntario gisara aritu zen etxetik irteterik ez zutenei beharrezko gauzak eramaten. Eta Maite, eta Jon, eta izenez ezagutzen ez dugun abar luze-luze bat aritu da gure eskualdeko herrietan ahal zuena egiten. Egoera txarretan gure onena erakusten duten ekintza txiki hauek egiten dute handi herri hau. Eskerrak, gero, halako jendea dagoen munduan!

**«EKINTZA TXIKIEK
EGITEN DUTE
HANDI GURE
HERRI HAU»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Udaberriko maskarada

Ez hain aspaldi, inauterietaz aparte, turista japoniarrek eta Michael Jacksonek edo bertze frikiren batek bakarrik jantzen zituzten. Duela bi hilabete kaltegarriak ere izan zitezkeela aipatzen ziguten osasun agintariak eta orain, berriz, ia derrigorrezkoak. Norbera babesteko, bertzeak ez kutsatzeko eta bietarako balio dutenak ere badirela kontatu digute.

NABARMENTZEKOAK



IONE
ZOZAIA
KANTARIA



MIKEL
SAN SEBASTIAN
PRESOA

Kilima taldeak irabazi du EITBko 29. Gaztea Maketa Lehiaketako Entzulearen GazteBizHitza saria eta hara non, Zugarramurdiko Ione Zozaia da taldeko kantaria. Euskal runba egiten dute.

Murtzian, espetxe berean dagoen Patxi Ruiz presoari elkartasuna adieraziz, Mikel San Sebastian lesakarrak bi eguneko baraualdia egin zuen maiatzaren 17an eta 18an.

ATZERA BEGIRA



2010-05-27 · TTIPI-TTAPA · 519 zk.

Ollingo meategien arrastoak

Goizuetatik zazpi bat kilometrotara, Ezkurrako lurretan dagoen Ollin auzoan, garai bateko meategien hondakinak baino ez dira gelditzen gaur egun. Baina bere urterik oparoenetan denetarik eduki zuen: etxebizitzak, barrakoaia, 30 neska-mutikorentzako eskola, kantina, jantokia, eliza ttiki bat... Ia 200 bizilagun eta langile izatera ailegatu zen Ezkurrako auzo hori. Horren inguruko erreportajea kaleratu zuen duela hamar urte TTIPI-TTAPAK. Eta mugimendu handiko urte haien inguruan aritzeaz gain, meategiko langile izan ziren Antonio Apezetxea eta Jose Ramon Arozena goizueta-rran eta Inaxio Biurrarena aranoarraren testigantzak bildu zituen. Argazkian Juanito Telletxea Ollingo auzotarra ageri da.



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttapi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagaien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,
Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorena, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea

Kudeatzailea

Joxemmanuel Irigoin

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Sempereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€





KOLABORAZIOAK

IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Txar guztiak badu bere alde ona

Nahiz eta batzuk aurreikusi zetorkigun egoera, gehiengoari ezustean harrapatu gintuen. Egoera benetan beltza etorri zaigu.

Gizartean aldaketa izugarria nabaritu dugu, konfinamendua, etxetik lan egin beharra, ERTEak, lantegiak itxiak, komertzio askok ateak ezin zabaldu, distantzia fisikoa...

Eta eskolen ixteak. Egun batetik bestera ixteko agindua iritsi zitzaigun. Ortzeguna, martxoaren 12an 19:00 aldera korreoz adierazi ziguten ortziraletik aurrera eskolak itxi behar genituela. Benetan ezohiko egoera.

Inongo argibiderik gabe eskola bakoitzak bere bidea hartzeko lana izan genuen. Erabakiak hartzeko momentua izan zen, inolako argibiderik gabeko erabakiak.

Etxetik lan egiteko gela birtualak sortu, helbide elektronikoa zenbait mailetarako, gurasoei argibideak, ikasleei argibideak... Erloju kontrako lana egin behar izan genuen.

Lehenengo asteak eromen hutsa izan ziren, materiala sortu, lan martxa hartu, ikasleen egoera aztertu eta lan karga egokitu, bidaltze eta zuzenketa prozesua... Lan karga izugarria izan genuen, etxe askotan bezala.

Baina denborarekin, denak neurria hartu eta ederki egokitu garelako esanen nuke. Pertsona baikorra naiz, eta beti pentsatu

izan dut gauza txar guztietatik, zerbait positiboa atera dezakegula. Eta oraingoan ere, gauza asko atera ditugula pentsatzen dut. Hona hemen adibide bat.

Konfinamendu egoera

«GORRITIREN BI ESALDIREN HAUSNARKETA EGITEN UTZI NAHI ZAITUZTET»

honetan, Gorriti artistak proposamen bat luzatu zuen egoera beltz honi aurre egiteko, mundua kolorez betetzea, hain zuzen. Proposamena ikasleei helarazi genien eta artelan bikainak egin zituzten. Aldi berean, guk Gorritiri igorri genizkion artelan koloretsuak.

Ezustean Gorritik berak eskerrak emateko deitu zigun, bere sentimendu eta emozioa adierazteko, irrintzi, dantza eta algararte.

Benetan bizi filosofia bikaina duen pertsona batekin egin nuen topo. Egia borobilak botatzen dituen pertsonarekin. Nahiz eta telefonoz bakarrik solastatu berarekin, dei bat baino gehiago egin zizkidan behin eta berriz eskerrak emanez. Sentimenduz betetako pertsona batekin egin dut topo, natura, koloreak, mendiak, usainak, basoetako soinuak... benetan bihotz-bihotzez maite dituen pertsonarekin. Baina honen guztiaren gainetik, umeak maite dituen pertsona batekin egin dut topo.

Aurki fisikoki elkar ezagutzekotan gelditu gara, baina haurrak kontutan hartuta, berak esandako bi esaldiren hausnarketa egiten utzi nahi zaituztet: «Gaurko ezkurra biharko oihera» eta «Munduko haur guztiek elkar besarkatzen dutenean sortuko da benetako askatasuna».

Bete dezagun guk ere mundua kolorez!

ZUHAITZ BELOKI LEIZA

Adimen artifiziala eta izurriteak

Stephen Hawking fisikari ezagunak, hil aurretik, kezka azaldu zuen adimen artifizialaren etorkizunaren inguruan. Beldur zen hurrengo ehun bat urtetan adimen artifiziala gizakiaren adimenaren parera iritsiko ote den, puntu horretatik aurrera adimen artifizial horrek berak hobetuko bailuke bere burua, gizakiaren laguntzarik gabe. Izan ere, gizakia eboluzio biologikoaren erritmo motelera mugatuta dago, eta ezin izanen luke, zentzu horretan, makinekin lehiatu. Garai hori iritsiko balitz, Hawkingek dio gizakiaren amaiera izan litekeela.

Oraindik asko falta zaigu puntu horretara iristeko, baina gaur egun eskura daukagun adimen artifiziala oso aurreratu da duela urte gutxi geneukanarekin alderatuta. Une polita da adimen hori gure mesedetan erabiltzeko. Zer esanik ez izurrite honek bete-betean harrapatu gaituenean.

Ikertzaileak bete-betean dabilta birusari aurre egiten lagunduko diguten sistema eta aplikazioak lortu nahian. Erresuma Batuko ospitale batzuetan, adibidez, biriketako erradiografiak automatikoki aztertzen dituen sistema bat erabiltzen hasiak dira. Garatzaileen arabera, sare neuronalan oinarritutako adimen artifizial horrek, aztertutako kasuen % 90 baino gehiagotan asmatu omen du birikak

sano dauden edo ez.

«ESPERO DEZAGUN ADIMEN ARTIFIZIALA BIDELAGUN IZATEA»

Gaixoaren sintomak eta historia klinikoa jakinda, COVID-19a daukan edo ez iragartzen saiatzen diren sistemak ere dagoeneko hainbat herrialdetan erabiltzen ari dira. Noski,

horrelako sistemen iragarpenak gizaki profesional batek aztertu behar ditu edozein erabaki hartu aurretik, baina diagnostiko azkarrak egiten laguntzeko egokiak izan daitezke.

Neurriak aurretik hartzea beti hobea denez, badago beste ikerkuntza lerro bat izurriteak iritsi aurretik iragartzea helburu duena, ospitaletako datuak, hegaldien fluxuak eta abar kontuan hartuz. Orain arte nahiko itzalean egon bada ere, pentsatzekoa da hemendik aurrera inbertsio handiagoak egingen direla horrelako ikerkuntzetan.

Edozein kasutan, espero dezagun Hawkingen iragarpenak ez betetzea, eta adimen artifiziala bidelagun izatea beste edozein mehatxuren aurrean ere.

11 GALDERA LABUR

HODEI LUJANBIO GOIZUETAKO KIROLARIA

«Kirol-puntu onean egonik, etxean gelditzea zaila egin zait hasieran»

Nor da Hodei Lujanbio?

Mendian ibiltzea eta mendi lasterketetan parte hartzea gustatzen zaion goizuetarra.

Noiz hasi zinen lasterketetan parte hartzen?

2014an hasi nintzen mendian lasterka ibiltzen. Goizutrail antolatu zen lehenengo urtea izanik, mendia probatu eta parte hartzeraz animatu nintzen. Herrian lasterketa antolatuta, herriko kirolzaleek parte hartu behar!

Martxoan Lesakako II. Mendi lasterketa irabazi zenuen...

Azkenaldian gustura ari nintzen lasterka eta emaitza onak eta podium batzuk lortuak nituen, baina irabaztea beti izaten da zaila... Lesakarekin beti eduki dugu harremana goizutarrok eta aldehortatik, poz gehixeago eman

zidan. Konfinamendu aurreko azkena zenez, zapore onarekin gelditu nintzen behintzat!

Ekainean Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartu izan duzu...

Bai. Lehengo urtean distantzia probatu eta ibilbidea ezagututa, aurten errepikatzeko asmoa nuen. Gustatu zitzaidan seinale! **Lehendabiziko aldia, eta eskualdeko lehendabizikoa izan zinen...**

Oso gustora egin nuen eta emaitzarekin oso pozik eta harrিতuta ere gelditu nintzen. Helburua beti hobetzea izaten da, baina distantzia horietan zaila da...

Zer du EHMEk bereizgarri?

Distantzia. Gainera, oso ibilbide polita iruditzen zitzaidan.

Beste kirolen bat egiten duzu?

Lasterka egunero ibiltzea ez da komeni. Bizikleta estatikoa, elip-



tika, indar ariketak... tartekatzen ditut. Lagun artean frontenis ibiltzea ere gustatzen zait.

Konfinamenduan nola moldatu zara?

Hasieran zaila egin zitzaidan. Kirol-puntu onean egonik, etxean gelditu, ezin mendian entrenatu, lasterketa guztiak suspenditu... Ahal den neurrian etxean forma mantentzen saiatu naiz.

Festak ere hor daude... Bertan beharra gelditzeko arriskua ikusten duzu?

Bai edo orain arte ezagutzen ditugun bezala behintzat ez dira

izanen. Festak jende aglomerazioekin lotzen ditugu Euskal Herrian, eta hori da orain saiestu beharrekoa.

Festa eta kirola bateragarriak dira?

Bakoitza noiz egin jakin behar... Parranda eginez gero, igandea deskantsu! Kirolean maila onean ibiltzeko parranda kopurua neurtzea beharrezkoa da.

Zein ekitaldi izanen litzateke faltan izanen zenukeena?

Lagun arteko otorduak eta txarangaren gaueko buelta.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Ohe-estalkien bilduma berria eta ugaria



HEMEROTEKA



«Jende anitz udaberrian baino ez da oroi-tzen alergiekin. Polenari izaten ahal diogun alergia bertzerik ez dela existitzen uste dute, baina ez da egia. Akaroei edo animaliei alergia dietenak, adibidez, okerrago egonen dira egunotan etxe barruan. Etxe barruko alergenoei gaitzotzen dituzte, eta, ondorioz, etxe barruan denbora gehiago egoteak ez die onik egiten. Polenari alergia diotenak, berriz, etxean hobeki egonen dira, kanpoan baino (...) Asma duten pertsona anitz badira, baina jende anitzek ez du behar bezala kontrolatzen bere gaitza».

ESOZIA ARROABARREN
ELIZONDO ALERGOLOGOA I
HITZA. 2020.05.08



«Etxean sartuta luze egiten da. Eta gure kasuan, kirola egitera ohituta, beti kanpoan, ez da erraza (...) Kezka puntu bat beti daukazu. Ez zara frontoian ibili, nola bueltatuko zaren ez dakizu... Baina, egia da, aldi berean, denak berdintsu egonen garela. Ez da lesio batetik ateratzen zarenean bezala, zu bakarrik egon zarela geldirik. Uste dut denoi kostatuko zaigula pixka bat, erritmoa eta maila hartzen. Prestaketa horretara bideratu, eta lehengo mailara bueltatzen saiatu beharko dugu, ahalik eta azkarren».

IKER SALABERRIA
GOIZUETAKO PILOTARIA I
KRONIKA. 2020.05.02



«Etkez inguraturik, gure geroa oso kezka-garria ikusten dugu Senpereko urbanizazio planarekin (...) Erabiltzen ditugun tresnen harrabotsekin, edo bezeroen joan-jinek eragin harrabotsekin balizko biztanleen salaketan beldur gara (...) Inguruko lurra eraikuntzara bideratuz garapenaren aldetik ez da gehiago aukerarik izaten ahal (...) Behar dugu segurtatu Euskal Herriko haziak ez direla kanpoko beste mota batzuekin kutsatzen eta beraz gurutzatzen. Behar da garbitasuna atxiki eta hori ez genuke gehiago egiten ahalko».

MIRENTXU DOIHENART
SENPEREKO BARAZKI EKOIZLEA I
HITZA. 2020.05.15

BOTA BERTSOA

IÑIGO GOROSTARZU ETXEBESTE
LEITZAKO BERTSO ESKOLAKO KIDEA

Hausnartzeko ueña
Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

*Eguzki eta argi pixka bat
ekarri digu maiatzak,
xamurtzen eta hobetzen doaz
osasunaren emaitzak,
itxi aldia juzgatu arren
luze edo gehiegiztat,
gertuko eta zeuen burua
izan badezue aintzat,
tarte honetan aspertuaren
penarik ez izan behintzat.*

*Denak genbiltzan arrapaladan
iritsi ezinik, aika,
zurrunbiloan eta multzoan
amets berberei jarraika,
ez al dezute birbalaratu
zeuen ingurua maita,
pentsatu behar degu patxadaz
eta helburuak sailka
bide batzuetan geldialdia
ezinbestekoa baita.*

«Espero eta desio dut kontzertuetara berriz bueltatzea, baina ezin baldin bada zerbait egin beharko dugu, honekin jarraitu edo ta beste zerbait asmatu. Baina ez da inolaz ere gauza bera etxetik egitea, zuzenean jendea parean duzula sortzen den kone-xioarekin. Publikorik gabe, ez dago kone-xiorik».

PETTI | BERA KO MUSIKARIA I
D. NOTICIAS. 2020.05.19

Zaindu maite duzun hori...

Zein
da
zuzena?

*Hainbertze herrialdeetan ala hainbertze herrialdetan?

Zenbatekoa aditzera emateko, zenbatzaile zehaztuez gain, badira zehaztugabeak ere, kopuru zehatza adierazten ez dutenak: aunitz, guti, hainbertze, zenbait, anitz, franko, ugari, batzuk, nahikoa, hamaika... Eta horiekin guztiekin mugatua erabili behar da.

- *Hainbertze herrialdeetan > Hainbertze herrialdetan
- *Zenbait kideen iritzia > Zenbait kideren iritzia.
- *Hainbat ikasleek > Hainbat ikaslek
- *Ikerketa askoek > Ikerketa askok

Zenbatzaile zehaztugabeekin singularra zein plurala zilegi dira.

- Hainbat liburu aurkitu *zuen/zituen* han.
- Zenbait lagun ikusi *dut/ditut*.
- Liburu aunitz erosi *dut/ditut*.

Baina badira salbuespenak.

a) Denbora denean, leku-denborazko kasuetan... Mugatu singularra hobetsita dago: denbora gutxian, urte askoan, hainbertze hilabeteen...

b) *Batzuk* beti pluralean erabili behar da:

- *Ume batzuk ikusi *dut* > Ume batzuk ikusi *ditut*

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*ASKO MAITE NAIZ > *ASKO MAITE DUT NIRE BURUA > ASKO MAITE DUT NEURE BURUA

Perpauz bihurkariak ekarri ditugu aldi honetan Euskararen Txokora. Alboko hizkuntzetan *erreflexibo* izenez ezagutzen direnak dira eta euskaraz, <neure, heure, bere, beren/euren... + burua> esapidea erabiliz osatzen direnak, hau da, izenordain indartuarekin. Hona hemen adibide batzuk:

-Ezin izanen dugu geure burua horretara behartu (*ez gure burua).

-Andonik bere burua zauritu du.

Horien inguruan, ordea, sarritan kalko itxurako hainbat esapide erabiltzen dira eta hona hemen Euskaltzaindiak emandako zenbait ohar:

- a) IDORTU, GARBITU, ORRAZTU, AURKITU eta gisako aditzekin *da* erregimena erabiltzea zuzena da:
 - Idor zaitez ongi!
 - Ispiluaren aitzinean orrazten da goizetan.

b) Honako egitura hauek euskaraz bihurkari bidez eman izan direnez, hala ematea da egokiena:

*Errekara bota *naiz* > Neure burua errekarara bota *dut*.

*Sarritan ikusten gara egoera horretan > Sarritan ikusten dugu geure burua egoera horretan.

*Etorriko ote zaren galdetzen *naiz* > Etorriko ote zaren galdetzen diot neure buruari.

c) Aldi berean, era honetakoak baztertzekoak dira:

*Garbitu (al) zara aurpegia? > Garbitu (al) duzu aurpegia?

*Galtza berriak erosi *naiz* > Galtza berriak erosi *ditut*.

*Txapela jantzi *naiz* > Txapela jantzi *dut*.

Horietan, *aurpegia*, *galtza berriak* eta *txapela* aditzen osagarri zuzenak dira, eta, beraz, *du* behar dute. Hau ere desegokia da:

*Ea ongi esplikatzen *naizen* > Ea ongi adierazten/azaltzen *dudan*...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Oztopoak oztopo lanerako gogoz

Fasetik fasera, konfinamendua arintzen hasia da. Horrekin batera, bi hilabetez itxita egon diren negozioak ateak irekitzen eta etxean egon diren langileak lanera bueltatzen ari dira. Mugimendua, ordea, ez da inondik inora lehengoa

N. BAZTERRKA / E. IRAOLA / G. PIKABEA

Hasi da mugimendua. Fasetik fasera pasatzeko aukerak ateak ireki dizkie hainbertze denboran geldirik egon direnei. Dendak poliki-poliki irekitzen hasi dira, ostatu eta jatetxeak ere ahal duten neurrian ernatzen ari dira, eta enpresa gehienek jarduerari eusten diote. Luze egin zaie bi hilabetez negozioa itxita izatea baina segurtasun neurriak hartuta lanerako prest dira.

Mugimendua, ordea, ez da inondik inora lehengoa, eta aunitz lanean hasi badira ere, berte aunitzek halabeharrez etxean segitzen dute: langabezian gelditu direnek, aldi baterako erregulazioan dauden langileek, jaso duten kolpe ekonomikoaren ondotik negozioa berriz irekitzeko aukerarik gabe gelditu direnek, probintzia batetik bertzerajoa teko muga tarteko bisitaririk gabe gelditu diren turismo alorreko ostatuak eta jarduerak, taldean elkartzeko debekuak bezerorik gabe utzi dituztenek... Zerrenda luzea da.

Zerbitzuen sektorea kaltetuena
Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, guztien artean zerbitzuen sektorea izan da kaltetuena, eta nabarmen, gainera. Ezohiko egoera honetan, Nafarroa mailan aurkeztu diren enplegu-erregulazioko espedienteen artean %84 zerbitzuen sektorekoa izan da. Segidan, eraikuntza sektorea dago, espedienteen % 5,2rekin.

Kaltetutako langileen ia erdia (% 47,69) enpresa ttiketako eta mikroenpresetakoa da (50 langiletik beheitikoak), eta mikroenpresa horiei dagokie aurkeztu diren enplegu-erregulazioko espedienteen % 95,7.

Eskualdeko datuei erreparatuz, Covid-19ak sortu duen alarma egoeran, Baztan-Bidasoan guztira 278 espediente aurkeztu dira eta horiek 3.154 langileri eragin diete. Langileen %5,7a izan da kaltetua, Nafarroako erdialdearen



Bezeroak euren negozioetan hartzeko eskubidea berreskuratu dute negozioiek.

Langabezia eskualdean

Urtea	Langabe kopurua	Langabezia tasa
2006ko apirila	642	%3,64
2007ko apirila	574	%3,26
2008ko apirila	623	%3,51
2009ko apirila	1.015	%5,70
2010eko apirila	1.149	%6,46
2011ko apirila	1.148	%6,51
2012ko apirila	1.258	%7,22
2013ko apirila	1.471	%8,57
2014ko apirila	1.342	%7,99
2015eko apirila	1.168	%7,09
2016ko apirila	977	%6,00
2017ko apirila	892	%5,50
2018ko apirila	721	%4,47
2019ko apirila	684	%4,26
2020ko apirila	838	%5,22

gibeleetik, ondorio handiena utzi duen eremua izan da. Leitzaran-Larraun eta Sakana eremuan, berriz, 2.087 langileri eragin dieten 258 espediente aurkeztu dira.

Langabezia goiti

Egoeraren erakusle dira langabezia datuak. ERTEn edo aldi baterako erregulazio espedienteekin lanik gabe gelditu direnak kontuan hartu gabe, langabezia igo egin baitzen apirilean. Zehazki errateko, otsailaren 29tik apirilaren 30era bitarte, Baztan-Bidasoaldean %12,20 hazi zen langabezia: 78 lagun gehiago ziren enplegu bulegoan izena emandakoak. Larraun-Leitzaldean, berriz, 49 langabe gehiago zenbatu zituzten, otsail hondarreko datuekin alderatuz, %23,60 gehiago. Guztira Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emandakoak 838 ziren, iaz garai berean baino 154 lagun gehiago eta 2017an baino 117 gehiago.

Koronabirusa tarteko jardunari osotasunean edo partzialki eutsi ezin dioten enpresek gutxienez ekainaren 30era arte luzatzen ahalko dituzte erregulazioak, eta zabalik utzi du epe hori luzatzeko aukera. Gisa berean, langile bat lanera itzuli eta ondoko sei hilabeteetan ezin izanen dute kanporatu.

Aldi baterako lanaldietan, ordea, kaleratzeak egiteko aukera baimendu du: enpresak aldi baterako kontratua eteteko aukera izanen du kontratua bukatu baldin bada edo kontratatutako lana bukatu baldin bada. Horrez gain, hondo jotzeko eta hartzekodunen konkurtoan sartzeko arriskuan dauden enpresek ere langileak kaleratu ahal izanen dituzte.

Hortaz, ikustekoa izanen da ondoko hilabeteetan nolako bilakaera izaten duen langabeziak. Eta datuen gibelean pertsonak daude, modu batera edo bertzer, gehiago edo guttiago, kalteak jasan dituztenen bizitzak.



Lesakako kiroldetik langilea da Jone Ordoki Urkixo.

«Epe luzexeagora beharbada ondorio ekonomikoak ikusiko ditugu»

2008az geroztik, Lesakako kiroldetik harreragilea da Jone Ordoki (Lesaka, 1982). Bera eta kiroldegian lanean ari diren 14 langileak «itxuraldatutako langabezia» daude orain eta «alarma egoerak iraun artean» halaxe egonen dira. Momentuz, ez dakite itzulera noiz eta nola izanen den: «espazio itxian dauden instalazioen erabilera gibelatu behar dutela eta igerilekuak neurri zehatz batzuk hartuz ireki ahal izanen direla leitu dut...». Dena den, «jakinarazpen ofizialik ez» dutela jaso argitu du. Beldurrik ez, baina «urduritasuna» eragiten dio bueltak: «bizimoduan aldaketa gertatuko delako». Epe laburrean «orain bezalaxe» irudikatzen duena, gerora ilunago ikusten du: «epe luzexeagora beharbada egoerak eragindako ondorio ekonomikoak ikusiko ditugu».



Lau urte daramatza Bertiz Abentura Parkean lanean Xanti Garmendiak.

«Taldeak onartzen ez badira monitore guztiontzat lanik ez da izanen»

Martxo hasieran hasi zuten Bertiz Abentura Parkean denboraldia eta «kontu eman orduko» itxi behar izan zituzten ateak. Bertako langile den Xanti Garmendiak aipatu digunez, «bi astetara etxera bidali gintuzten». Guztira «monitore, sukaldari, bulegoko langile eta garbitzaileak barne, 25 bat langile» dira bertan lan egiten dutenak eta «gaur gaurkoz, gehienok behintzat aldi baterako lan erregulazio txostena dugu». Langile horiez gain, izanen dira eragina sumatuko dutenak «udan, udalekuak tarteko, aunitzez ere monitore gehiago» izaten baitira. Bueltatzeko datarik ez duten arren, aurreikuspen baikorrik ez du Garmendiak: «talde handiek lan egiten dugu eta aurten ez dut uste hori baimenduko dutenik, beraz, monitore kopurua jaitsiko dela pentsatzen dut».



Sonia Largo Diaz, Leitzako ostalaria.

«Baldintza hauetan ezin da negozioa ireki»

Leitzako Atsedeen Gozo kafetegiko jabea da Sonia bere anaiarekin batera eta urtarilaz geroztik Jubilatuen taberna alokairuan hartua dute. Martxa betean harrapatu zituen Alarma Egoerak: «nahasita ibili ginen ez genekien oso ongi zer egin behar genuen ezta zer pasako zen ere». Etxekoez gain, soldatapeko hiru langile aritzen dira beraiekin eta «ERTEan sartu behar izan ditugu». Momentuz lanean ez hastea erabaki dute: «ez baita errentagarria terrazak %50era irekita lanean hastea. Gastu asko dira eta irabaziak txikiak». Gainera, arrisku taldeko kidea ere bada Sonia (giltzurrun trasplantea egina diote) eta horrek baldintzatuko du bere itzulera: «segurtasun osoz lan egin dezakedala jakin arte ezin naiz lanera bueltatu».



Xabier Ariztia martxoaren 17tik ERTEn dago.

«Mugak irekitzean lanera itzultzea espero dugu baina ez dugu garbi»

Martxoaren 17tik ERTEn dago Xabier Ariztia Urriza urdazu-biarra. 11 lankide dira eta «bulegokoak izan ezik» bera bezala daude Dantxarineko Josenea gasolindegian zerbitzatzen aritzen direnak. Ez daki noiz itzuliko diren: «espero dugu mugak irekitzean lanera itzultzea». Udan izaten dute «lan gehien» eta «deus garbi ez» badu ere, «aurtengoan ere hala izatea espero dugu. Mugak itxia egon ondotik, irekitzean segur aski lan kolpe handia izanen dugu, baina espero dugu denborarekin normalizatzea». Onartu digu «kezka» sortzen diola gaiak, «ekonomikoki kolpe handia izan da aunitzendako eta horrek denoi eragiten digu». Halere egoera «etxe-koekin egoteko, aspaldiko afizioak berreskuratze eta proiektu pertsonalei bultzada emateko» baliatu du.



Arantzako Aterpeko Xabi Zugarramurdi.

«Inoizko udaberririk onena espero genuen eta txarrena izan da»

«Erabat geldirik, lanik eta diru sarrerarik gabe». Xabi Zugarramurdik dioenez, hala daude Arantzako Aterpean. Itxita aterpea, jatetxea eta ostalua eta etxean 10 langileak eta denboraldika hartzen dituzten hezitzaileak. «ERTE gaude eta ez dugu garbi noiz hasiko garen». Martxoaren 12an sumatu zuten lehen seinalea: «Bilboko talde bat genuen aterpean eta ikastetxetik dei bat jaso zuten etxera bueltatzeko erranez». Eragina «izugarria» izan dela dio: «inoizko udaberririk onena espero genuen eta txarrena izan da». Gaiak «kezka handia» sortu eta etorkizuna «ziurtasunik gabea» ikusten badu ere, txarrenari onena ere atera nahi izan dio: «dena ez da lana. Kontsumoaren zurrumbilo eroan bizi gara eta tarteka, osasunagatik, gelditzea komeni zaigu».



Cristina Olazar Apeztegia Doneztebeko eskolako sukaldaria da.

«Oraindik ez dakigu noiz eta nola hasiko garen lanean»

Egun batetik bertzerera 400 bat lagunendako bazkaria prestatzeari utzi behar izan dio Cristina Olazar Apeztegia elgorriagarrak. Doneztebeko eskolako jangelako sukaldarietako bat da eta martxoaren 13a izan zuen azken lan eguna. «Egun horretan jende guttiago etorri zen, baina normaltasunez aritu ginen». Etxean dago, baina berezia da kasua: «nire 40 orduko lanalditik 32 administrazio publikoari lotutakoak dira eta hortaz, zati hori, %84, enpresak ordaintzen dit; eta gainerakoa ERTE bidez». Kontatu digunez, «oraindik ez dakigu ziur noiz hasiko garen ezta itzulera nolakoa izanen den ere. Baina espero dut aldaketa handirik ez izatea». Gainerakoan, «zorioneko» sentitzen da lanpostua mantentzeaz gain, «ingurukoak ere lanean daudelako» baina «egoera hau agudo pasatzea» nahi du.



Zalain Transformados-en 22 urte daramatza Juan Manuel Altzuarte.

«Ekainean hobekuntzarik ez bada egoera arriskutsua izan daiteke»

Eskualdeko enpresa handienetakoa da Transformados Zalain, gaur gaurkoz, «250-270 langile inguru» dituena. Tartean da Juan Manuel Altzuarte (Oronoz-Mugairi, 1977), kargako langilea, eta kontatu digunez «apirilaren 1etik lan erregulazioan» dago. Berak bezala, «gerenteak, produkzioko nagusiak eta teknikoak, giza baliabideetakoak eta segurtasuneko langileak izan ezik» denek «irailera arte» ERTEa sinatua dute. Halere, pixkanaka lanean hasiak dira: «maiatzetik txanda batean ari gara». Hori ez zaio aski iruditzen Altzuarteri eta «ekainean hobekuntzarik ez bada egoera arriskutsua izan daitekeela» uste du. Egoerari aitzin egiteko, euren alde ikusten du enpresaren balioa: «Zalain ezaguna da, egiten dituen produktuengatik eta produktu horien kalitateagatik».



Bernart Errandoneak Alkeberrea landetxea du Beran.

«Jendea landaguneetara etorriko delako esperantza dut»

Koronabirusak astinaldi ederra eragin du turismo alorrean. Hasieran etxetik ateratzeko debekua zegoelako, eta orain, jendeak «beldur handia» duelako landetxeak hutsik daude. Berako Alkeberrea landetxeko Bernart Errandoneak ongi daki hori: «uztailerako bizpahiru aste hartuak genituen eta solastatu ez badugu ere, galdutzat jotzen dugu». Orokorrean, «lan gehiago abutzuan» izaten dute eta aurten hala ote den ikustear dago, «beranduago egiten dituzte erreserbak...». Edozein modutan, «birusak eragindako beldurra eta ekonomia arazoak» ez ditu lagun ikusten: «egoera honetan jendeak lehendabiziko utziko duena oporrak izanen dira». Dena den, «ateratzen diren horiek hiri handietara jo beharrean mendi aldera jotzea erabakitzea aukera bat izanen litzateke... eta horretan dut esperantza».

«Aurtengo urtea kasik galdutzat eman dezakegu»

MUSKOA TOLOSA BERA KO TAKATUKA BIDAIAK BIDAIA AGENTZIA

Koronabirusak sortu duen ezohiko egoerak bete-betean jo du turismoaren sektorea eta «kolpe gogorra» izan dela aitortu du Berako bidaia agentziako jabeak

G. PIKABEA | BERA

Argi mintzatu da Berako Takatuka Bidaia bidaia agentziako Muskoe Tolosa: «egoera larria da» eta turismo sektorearentzat «kolpe gogorra izan da». Bere irudiko, «bertze edozein sektoreri baino gehiago kostako zaio aitzinera egitea». Hala ere, ez du galdu itxaropena: «kostako zaigu baina lortuko dugu».

Bidaia agentzia itxi eta bi hilabetez etxetik aritu zinen lanean. Nolako asteak izan zinen?

Hasierako bi asteak hagitx gogorak izan ziren: etxean bitarteko guttiagorekin lanean, Kanariar Uharteetan zeuden bidaia-riak gainezka zeuden enbaxadetan eta hegazkin konpainien bidez aberriratzaren... Aste Santuko kanpaina bertan behera utzi genuen eta bidaia bertan behera utzi eta diru-itxultzeek lan handia eskatzen dute. Aldi berean, etxeko ttikiekin etxeko lanak egiten aritzea tokatu zait. Eromena izan da baina poliki-poliki egoera lasaitu da.

Noiz hasi zinen koronabirusaren eragina sumatzen?

Urtarril hondarrean Asia aldean zebiltzan bezeroak murrizketak sumatzen hasi ziren. Handik guttira hegaldiak bertan behera uzten hasi ziren.

Zer gertatu da erreserbekin?

Martxotik ekain hasiera arteko bidaia guztiak bertan behera gelditu dira. Batzuk oraindik ekain erdialdera bidaiatzeko



«Kolpe gogorra» izan den arren, «aitzinera eginen» dutela sinetsita dago Tolosa.

itxaropena badute, nahiz eta ate joka dugun. Hotelen irekieraren inguruan neurriak hartzeko eta garraio mugak arintzeko esperoan gaude.

Bertan behera gelditu diren bidaia horiekin zer gertatu da?

Ahal dudan guztietan dirua itxultzen ari naiz. Baina hegazkin konpainien, itsas bidaien edota taldeen erreserbak baieztatzeke egin behar izan genituen ordainketak nahi baino gehiago luzatzen ari dira. Pazientzia handia beharko dugu. Hegazkin konpainia aunitzek hegaldiak egunez aldatzeko aukera baino ez dute eskaintzen, edo ordainduta-koaren truk epe luzera begira aurtun edo heldu den urtean erabiltzeko bonuak.

Nola erantzun dute hegazkin konpainiek eta hotelek?

Guztiontzat ustekabea izan da. 17 urte daramatzat agentzia eta tarte horretan grebak, aireportuen itxierak, jendea kanpoan utzi duten turismo enpresen porrotak, mundu mailako hegazkin garraioari eragin izan dieten sumendien erupzioak... Denetarik ezagutu dut. Baina egoera hau ez genuen inork espero, eta inor ez geunden prestatuta. Jarraierari berriz ekiteko neurriak hartzen ari dira: hotelek edukiera mugatuko dutela hitz eman dute eta instalazioetan desinfektatze lanak egiten ari dira, hegazkin konpainiak aldatutako eta bertan behera utzitako hegaldien inguruko

politikak astero aldatzen ari dira... Horrez gain, mugak irekitzeko esperoan gaude.

Egoera larria da?

Bai, larria da. Badirudi Europan argia ikusten hasi garela. Bitarteko guttiago dituzten herrialdeetan dezente gehiago luzatuko da susperraldia eta bidean, ostalaritzaren eta turismoaren sektoreetan lanpostu aunitz galduko dira.

Urtea galdutzat ematen duzu?

Kasik-kasik. Martxoan hau dena hasi aitzinetik genuen martxa berrartzea kostako zaigu eta sektore honi bertze edozeini baino gehiago. Atzendu beharreko urtea izanen da, baina baita ikasteko urtea ere. Kostako zaigu baina aitzinera eginen dugu.

Jendeak hurbileko turismoaren aldeko apustua eginen ote du?

Uda honetan tokiko eta hurbileko kosta aukeratuko du. Halere, hegaldiei uko eginen ez dietenak ere izanen dira, eta tartean ni neu, uzten badigute behintzat. Baina lurralde exotikoetarako bidaiek beheiti eginen dute, jendeak segurtasuna nahiko duelako.

Bidaia luzeak noiz hasiko dira?

Helmugaren, herrialde bakoitzaren egoeraren eta bezeroen konfiantzaren arabera izanen da. Baina baikorra izanda, uda ailegatzean aireportuetako harat-honata normaltasunera itzuliko direla eta mugak irekiko dituztela uste dut.

Prezioekin zer gertatuko da?

Litekeena da hotelek jendea mugiarazteko eskaintzak egitea. Baina hegaldien kasuan, maiztasuna eta edukiera mugatu beharko dutela kontuan hartuz, garestitu daitezke.

Turismoaren sektoreak alde positiborik atera dezake?

Akaso epe luzera eragin positiboa sumatuko dugu: toki turistikoetan jende pilaketa guttiago eta ostalaritzan bezeroekarreta hobia. Baina oraingoz kolpe gogorra izan da.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Bidaia agentzietara etortzeko gonbita luzatuko nuke, zein aukera dauden ikus dezaten.

10.000 euro jarriko ditu udalak herriko dendak sustatzeko

30 euroko mila txartel banatuko dira komertzioetan, 10 euro udalak jarriko ditu eta 20 euro bezeroak

TTIPI-TTAPA

Merkataritza ttikia sustatzeko *Bera bizirik! Gurekin zaude?* ekimen abiatu dute Udalak eta Larun Haizpe elkarteak. Dena den, elkartekide ez diren establezimenduei ere zuzendua da. 30 euroko mila bono banatuko dituzte herritarren artean, 10 euro Udalak jarriak eta 20 euro bezeroak berak.

Bonoak parte hartzeko konpromisoa hartu duten dendetan izanen dira eskuragarri. Hasierako fasean adin nagusiko herritar bakoitzak bono bakarra hartu ahalko du familia-unitateko, nahi duen komertzioan. Zortzi lanegun egonen dira herritarrek bonoak hartu ahal izateko. Lehen fase hori bukatzean oraindik bonoak gelditzen badira, establezimenduek bono hauek bezeroen artean banatuko dituzte. Bonoak kontsumitzeko bi hilabeteko epea izanen da. Epe hori pasatuta, Udalak erabilitako bonoen ordainketa egingen dio komertzio bakoitzari. Kanpaina maiatzaren 20an abiatu zen, uztailaren 18an bukatzeko.

«Herria bizirik mantentzeko»

Udalak balioan jarri nahi du herriko merkataritza txiki eta hurbila. «Krisi egoeran konfinatuta gaudelarik beraiek izan dira bizirautean lagundu digutenak eta zaindu gaituztenak. Berriz ere gure eskertza luzatu nahi diegu lerro hauen birtutez», dio oharrean.

Orain establezimenduak poliki-poliki irekitzen hasi direnean bultzada bat eman nahi diete sustapen bono hauekin, eta «beratarak animatu eta gonbidatu nahi zaituztegu kanpaina honetan parte hartu eta bono horiek erostera».

Krisi egoera honek udalaren eta herriko merkataritza txikiaren arteko harremanak sendotzeko balio izan du, elkar ezagutzeko ere bai, eta uste dute «Berako bizilagun guztiak konturatu garelako zein beharrezkoak diren herria bizirik mantentzeko. Hemendik aitzinera ere ildo honetan lanean jarraitzea nahiko genuke, herriko establezimenduetan kontsumituz, herri bizi eta bateratu bat izateko».

Lizuniagarako errepideko zatiak moldatu dituzte Errota eta Eraustea inguruan

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan herriko Lizuniagarako lepora doan errepidean ibilgailuen joan etorria izugarri igo da. Dantxarinea eta Luzaideko merkataritza gune haundiek behar dituzten hornigaiak eramateko kamioiak hemendik joaten dira, baita bertara lanera doazen langileen ibilgailuak ere. Hauxe gain, Zia auzoko bizilagunak egunero errepide horretan ibili behar dute bai oinez nahiz beren ibilgailuetan.

Honez gain, asteburu eta jai egunetan txirrindulariek ere aunitz maite dute ibilbide hau eta arrisku egoerak eta istripuak maiz bizi ditugu. Udalak aunitzetan eskatu du errepide honen egoera hobetzea, zati batzuetan egin den bezala bide bazterrak bete eta hormigoiezko kunetak eginez.



Lizuniagarako errepidea. UTZITAKOA

Aurten, azkenean, Nafarroako Gobernuak gure zonaldeko errepideen arduradunek modua izan dute zati batzuek gehiago moldatzeko kunetak bete eta hormigoiezkoak egiteko punturik arriskutsuena. Hala nola Errota parean edo Eraustea baserri inguruan. Oraindik zati aunitz falta badira ere udalak eskertu du lan hauek egin izana eta gainerako zatiak ere lehenbailehen egitea eskatu du.

Mukixu udal haurtzaindegian aurrematrikula

Mukixu udal haurtzaindegian aurrematrikula egiteko prozesua berriz martxan jarri dute. Eskara eta dokumentazioa aurkezteko epea maiatzaren 25etik ekainaren 1era ireki dute. Informazio gehiago: www.mukixu.com webgunean eta info@mukixu.com.

Arrakala digitala murrizteko laguntza eman du Udalak

Ikastetxe bakoitzak beharra zuten ikasle guztiei ordenagailuak utzi ondotik, Udalak bere gain hartu du LHko 3. mailatik aitzinerako seme-alabak dituzten familia guztiek Internetarako sarbidea izatea, egoera hau ez dadin ikaskuntza prozesurako oztopo izan.

LABE ZAR
Astelehenerdik ortziratera:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

ANTZUZELAI
S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Auzoa GO!
Etkez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAn
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

ERANDONEA, S.L.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

«Ortziralero herriko sortzaileen lanaz goza dezakegu»

ESTITXU PINATXO BERA KO UDALEKO ZINEGOTZIA

E. IRAOLA BERA

Alarma egoerak hankaz gora jarri dizkie udaberri eta uda parterako aurreikusiak zituzten kultur hitzordu gehienak. Aukera berrien bila hasi da udala eta Kultur Pilulak programa jarri du martxan, «herriarrei kulturaz gozatzeko aukera eta sortzaileei lanera-ko bidea emanez».



Estitxu Pinatxo. UTZITAKOA

Lanerako bidea

Herriarrei kultur programazio aberats bat eskaintzen segitzea da helburuetako bat eta horretarako, herriko sortzaileei aukera hau eskaintzea erabaki zuten: «horietako aunitz une hauetan inolako diru-sarrerarik gabe gelditu dira. Errealitatea gogorra da, ez dakigulako lehen antolatzen ziren bezala emanaldiak noiz hasiko diren antolatzen». Hori jakinik, udaletik «eskura ditugun baliabideak erabilia lagundu behar geniola ikusi genuen».

Bertakoen lanari balioa

Pinatxok azaldu duenez, kulturari balioa ematea ere bada ekimen honen asmoa: «izan

ere, azken aldiak aunitz dira kultura bultzatzeko antolatzen ari diren ekimenak. Bateko abestia sortzeko, bertzeko bideoa grabatzeko... eskatzen zaie. Beren borondate onenarekin kultur gileak lanean ari dira, baina arazoa da dohainik ari direla. Hau ez da pasatzen bertze inolako sektore edo lanbidetan».

Kultur pilulak aberatsak, anitzak, izatea nahi dutela ere azpimarratu du: «emanaldietan denetarik eskainiko dute, pilula ttikietan. Berako herriak badu fama musikagintzagatik, baina badira bertze alor batzuetan aritzen direnak ere. Kultur Pilula hauen bidez bertze diziplina batzuk ikusarazten saiatuko gara».



UTZITAKOA

David Mirandak atera du Lehenbizikoa

Maiatzaren 18an, denboraldia ireki eta ordu laurdenera atera zuen *Lehenbizikoa* Burlatako David Mirandak. 4.800 kiloko izokina Mugairiko haztegiatik ateratakoa zen, txipik gabea. Goiz berean bigarrena ere atera zuen Juantxo Otamendik. Sasoia uztailaren 31ra edo 53. izokina atera arte luzatuko da.



UTZITAKOA

Ostatuetako terrazak zabaltzeko aukera

Terrazak haunditzeko aukera eskaini die udalak ostalariei, «tabernaren inguruan dagoen espazio publikoa» eskainiz. Aukera hori onartzen duten ostalariek mahai eta aulkien kokapena eta bertzelako segurtasun neurriak betetzeko plangintza aurkeztu beharko diote udalari.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

gaueko konfort-kuxina

Centro Prim regina tolosaechepeare

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantz (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A.
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbeld@hotmail.com
www.zumarbeld.es

32.000 euroko dirulaguntza kultura eragileentzat

Beti Gazte elkarteak (5.784 euro), abesbatzak (4.242 euro) eta musika bandak (4.139 euro) jasoko dituzte handienak

AITOR AROTZENA

Herriko kultura eragileek 2020. urterako aurkeztutako programak ikusirik diru-laguntzak banatuko ditu Herriko Etxeak, alkatetzaren ebazpen bidez. Guztira 32.000 euro banatuko ditu.

Honela, Lesakako San Fermin Jubilatuko Elkarteak 1.683,75 euro jasoko ditu; Tantarumairu Ikastolak 2.325,62 euro; Bortzirietako Bertso Eskolak 1.698,14 euro; Tantarumairu Euskal Folklore Taldeak

1.940,59 euro; Mairu Antzerki Taldeak 1.453,51 euro; Beti Gazte Elkarteak 5.784,97 euro; Lesaka Trikitixa Elkarteak 1.241,78 euro; Lesakako Musika Bandak 4.139,07 euro; Lesakako Soinulariak taldeak 944,21 euro; Santa Zetilia Batzordeak 1.657 euro; Lesakako Abesbatzak 4.242 euro; Lesakako Organoaren Lagunak elkarteak 755,83 euro; Giltzarri Abesbatzak 1.630,72 euro; eta txistulari taldeak 2.502,81 euro.

Magala Haur Eskolan aurrematrikula egiteko epea ekainaren 5era bitarte

A. AROTZENA

Covid-19k sortutako alarma-egoera dela eta, Magala udal haur eskolan 2020-2021 ikasurterako haurrak onartzeko prozesurako data berriak ezarri ditu Udalak. Aurrematrikulak maiatzaren 25etik ekainaren 5era egin daitezke.

Ondotik, onartuen behin-behineko zerrenda uztailaren

1ean argitaratuko dute, errekamazioak egiteko aukera uztailaren 1etik 6ra izanen da eta onartuen behin-behineko zerrenda uztailaren 17an argituko da. Matrikula egiteko epea uztailaren 17tik 24ra irekiko da.

Eskaera orriak eta informazio gehiago www.lesaka.eus udalaren webgunean.



JOSE MARI TELLETXEA

Beti Gazteko futboleko neskak goiti

Futbol denboraldia bukatutzat eman zutenean, igoera fasean lehen postuan ziren Beti Gazteko neskak eta 2020-21 denboraldian Gipuzkoako Ohorezko mailan aritzeko aukera eskaini die federazioak. Bilera telematiko baten ondotik onartzea erabaki dute. Jubenilek maila mantenduko dute.

Genero indarkeriari aurre egiteko baliabideak plazara

Genero indarkeriari aurre egiteko baliabideak ezagutzera emateko informazio-orria argitaratu dute Lesakako Emakume Taldeak eta Udalak. Biktimek 948 63 50 36 (Gizarte Zerbitzuak), 948 63 80 00 (Osasun Etxea), 016 (informazioa) edo 112 (Larrialdiak) telefonoetara dei dezakete. Etxean tratatu txarrak edo eraso sexistak pairatzen dutenak botikan 'Mascarilla 19' eskatu eta bertan badakite 112ra deitu behar dutela. Susmorik izanez gero, ustezko biktimari laguntza eskaini behar zaio.

Herria ezagutzeko lehiari aritu dira neska-mutikoak

Egoera berezian izan bada ere, aurten ere Beti Gazte udalaren laguntzarekin antolatutako Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketan parte hartzeko aukera izan dute 6 eta 14 urte bitarteko herriko neska-mutikoak. Oraingoan, ikastetxeetatik bidalitako posta elektronikokoan jaso zituzten herriari buruzko 30 galderak eta hila-ren 25era bitarteko epea zuten erantzunak emateko. Sariak ere azken urteetako berdintsuak izanen dira, baina hori bai, ezin jakin noiz banatuko dituzten.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
[jaurnabera@gmail.com](mailto:jauernabera@gmail.com)

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etiketresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Ostatuak zabalik bertze bizitasun bat nabari da herrian

Herriko Ostatuan, Etxalarko Bentan eta Lizarieta terraza zerbitzua bakarrik eskaini dute maiatzaren 24a arte

IRUNE ELIZAGOIEN

Herriko Ostatuak terraza zabaldu zuen maiatzaren 11n. Hemendik aitzinera irekita egonen da asteartetik igandera 10:00etatik 15:30era eta 18:00etatik 20:30era. Mahai bakoitzean gehienez 10 lagun egoten ahalko dira eta mahaian artean bi metroko distantzia errespetatu beharko da. Asteburuetan bere ohiko kartako bokadilo eta errazioak ere zerbitzatuko dira eta etxez etxe banatzeko zerbitzuarekin ere jarraituko dute.

Maiatzaren 16an ireki zuten terraza Etxalarko Benta eta



Estimazio handia dute terrazek.

Lizarietako ostatuak ere. Denak ere, maiatzaren 24a arte terraza zerbitzua bakarrik eskaintzeko aukera izan zuten. Hortik aitzinera egoeran baimendu ahala joanen dira hurrengo pausoak ematen.

Bukatu dira eskolako Guraso Elkarteak antolatutako erronkak

IRUNE ELIZAGOIEN

Landagain eskolako Guraso Elkarteak antolatutako erronkei akabera eman zaie zazpigarrenarekin. Herritarrek beren irudimena landuz, udaberriko apainketa, pintxo erronka, mozarrotzea, kan-

pora ateratzea, oporleku ideala erakustea eta kirola egin ondotik, erronkei "aio" errateko aprobetxatu dute azkeneko hau. Erronka guztien bideoak Aimar Iparragirrek egin ditu eta Youtuben daude ikusgai. Mila esker!



IRUNE ELIZAGOIEN

Bukatu dira balkoietako txaloak ere

Txaloak, oihuak, korneta... 20:00etan jendeak ohitura hartua zuen leiho eta terrazetara atera eta osasun langileak txalotzekoa. 102 urteko Asun Elizalde ageri da argazkian, etxeko terrazatik txaloka. Ekimena pixkanaka indarra galtzen joan denez, maiatzaren 17a izan zen azken eguna.



UTZITAKOIA

Mikel Larrañaga, Etxalarko kastakoa

Mikel Larrañaga aizkolari bikaina, Etxalarko kastakoa da. Etxalartik Zumarragara bizitzera joandako Apeztiko bordako Fermina Mikelestorena Eilzagoienen biloba da, Pili Elgarresta eta Elias Larrañagaren semea hain zuzen ere. Jon Rekondo leitzarrarekin batera Urrezko Aizkora irabazi zuen martxoan.

XAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUR EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

MARTIX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA

«Txirrindulariaren errendimendua hobetzeko balioko du»

MIKEL ZUBIETA ANDUEZA ETXALARKO INGENIARIA

Goi mailako errepideko bizikletentzako kanbio elektriko bat garatu du Mikel Zubieta etxalartarrak Jon Madariaga bere lankidearekin eta, dena espero bezala badoa, 2022an merkaturatu nahi dute

G. PIKABEA | ETXALAR

Ikasitakoa eta zaletasuna eskutik hartuta daramatza azken urteotan Mikel Zubieta Anduezak (Etxalar, 1981); bizikletetik duen afizioa eta mekatronika, hain zuzen. Horixe izan du azken bortz urteotan egunerokoa eta horixe da etorkizunean hartu nahi duen bidea. Bizikletentzako produktuak diseinatzeko helburuz, Tekniker zentro teknologikoan zuen lana utzi eta 2015ean enpresa sortu zuen Jon Madariaga bizkaitarrarekin. Geroztik, goi mailako errepideko bizikletentzako kanbio edo martxa-aldagailu elektriko bat garatzen ibili dira. «Produktu berritzailea» 2022an merkaturatu nahi dute.

Zein helbururekin sortu zenuten Zuma Innovation enpresa?

Teknikerren genuen lana hagitx polita zen, mekatronika [mekanika eta elektronika] arloan ikerketan aritzen ginen, hainbat prototipo eginez. Aunitzetan, ordea, produktua ez zen merkatura ailegatzeko eta hori zen sumatzen genuen gabeziak. Hainbertzeko lanazertarako egiten genuen pentsatzen hasi eta horri Jon eta biok dugun bizikletarako afizioa gehituta, bizikletaren munduan zerbait egiten ahal genuela ohartu ginen. Bizikleten mundua aunitz aldatzen hasia zen, urtetan guztiz mekanikoa izana zen munduan elektronika sartzen hasia zen: bizikleta elektrikoak, kanbio

elektrikoak... Alde horretatik, mekatronikan dugun ezagutzarekin bizikletek dituzten arazoak konpontzen saiatzen ahal ginela ikusi genuen eta Tekniker utzi eta gure aldetik hastea erabaki genuen.

Nolakoa izan zen hasiera?

Hasiera ez zen gogorra izan. Bagenekien ideia garatu eta prototipoak egiten ari behar genuela. Baina denborarekin konturatu gara uste baino gogorragoa dela eta, hasieran pentsatu bezala, ez dela urte pare batez egiten ahal den zerbait. Hala ere, aitzinera egitea izan da beti gure lema eta halaxe egin dugu.

Finantziarioa lortzeko nola moldatu zarete?

Nahiko ongi. Hasieran apustu pertsonala ere egin genuen, gure aurrezkiak horretara bideratuz. Gero, BEAZ enpresaren dirulaguntza lortu genuen eta horrekin segitu genuen aitzinera. Egia da enpresak

muntatzeko laguntzak izaten direla baina laguntzetatik lehenbiziko urte pare batean moldatzeko adina lortzen da. Hortik aitzinera izaten diren laguntzak produkzio edo salmenta faseetarako dira. Hortaz, produktua garatzen bi urte baino gehiago behar badituzu airean gelditzen ahal zara. Baina tira, gure kasuan, geroa bertz inbertsiogile batzuk lortu izan ditugu. Zehazki, Basque Fondok emandako babes handiari eta bertz inbertsiogile tiki batzuei esker aitzinera segitu dugu. Babes horiek Gasteizen bulego bat hartu eta bertz urrats batzuk emateko aukera eman ziguten.

Gaur egun zertan ari zarete?

Orain arte prototipoak egiten aritu gara baina dagoeneko bizikletentzako kanbio sistema berria eta horren behin-betiko prototipoa prest dugu. Merkatura begira ere hasi gara eta horretarako anbizio handiko

plan bat prestatu dugu: inbertsio handiagoa, bertz bulego batera joateko aukera, iraile-rako bertz lau lagun kontratatzeke asmoa... Plan hori garatzeko behar dugun finantzazioaren gehiengoa ere lortu dugu, %70-80a. Horretan eta produktua fintzen ari gara. **Zenbat prototipo egin dituzue?** Prototipo bakoitza indibiduala da, eta guztira hamar bat egin izanen ditugu. Bakoitzaren detaileak ikusi, zertan huts egiten duen begiratu eta hurrengoan hobetzen saiatu... Kontu mekanikoa denez horrek aunitz moteltzen du garapena, bakoitza diseinatu, fabrikatu, muntatu... egin behar delako. Prozesu luzea da.

Zein dira zuen produktuaren berezitasunak?

Bizikletaren aitzineko martxa-aldagailuan jarri dugu arreta, normalean hori delako arazo gehien ematen dituen. Katea platera batetik bertzerara mugitzean arazoak sortzen dira, katea tentsiopean dagoelako. Hori saihesteko, katea platera batetik bertzerara mugitu ordez, platera bera katearen aldera mugitzea proposatu dugu. Gisa honetara, aldaketa aunitzez ere leunagoa izanen litzateke, energia guttiago kontsumitu luke, eta leunagoa eta fidagarria izateak gehiagotan erabiltzeko aukera eskainiko luke. Bertzetik, kanbio automatikoekin ari gara. Merkaturan kanbio elektronikoak sartuak dira, goi mailako bizikleta guztiek kanbio elektronikoak dituzte, baina oraindik ez du inork lortu kanbio automatiko eraginkorra. Horregatik gure produktuak merkaturan salto hori egingen luke. Guztiz produktua berritzailea izanen da, gure ustez, azken 30 urteotan bizikletaren transmisioan izan den saltorik handiena.

Zergatik goi mailako bizikletak?

Gure produktuak dituen abantaila teknikoak goi mailako txirrindularitzan nabarmentzen direlako. Bizikletan paseatzera doan batentzat ez da garrantzitsua kanbio automati-



Goi mailako bizikletentzako kanbio elektriko bat garatu dute Zubieta eta Madariagak.

ko eraginkorra izatea, baina *tourra* egiten ari den batenzat kanbioak nahi dituenen aldatu ahal izatea abantaila handia izan daiteke, segundo batzuk irabaziko lituzkeelako eta maila horretan segundo bakoitza hagitz garrantzitsua delako. Errendimendua garrantzitsua den mailetan abantaila hori eskain dezakegu. Hortik aparte, produktu hau hagitz tekniko da, garapen handia duena, eta hasieran, kostu handia izanen du. Hori ordaintzeko prest daudenak ere goi mailan ari direnak dira.

Enpresek edo txirrindulari taldeek interesa erakutsi dizue?

Bai, enpresa handiekin solas egin dugu, baita txirrindulari profesionalekin edo hemen inguruko bizikleta enprekin ere. Guztiei aunitz gustatu zaie eta aurrerapauso handia izanen dela iruditzen zaie. Baina kolaborazio bila joan garenean, laguntzeko prest daudela erran bai baina ez dute dirua gastatzeko asmorik agertu. Aitzinera segitzeko animatzen gaituzte baina produktua merkatutzeko prest dagoenean deitzeko erran digute. Hala ere, interes horrek gure produktua merkatua eramateko moduko dela ikusteko balio izan digu. Orain produktua ongi garatu, merkatua eramanez, prezio egokian paratu eta merketin egokia egitea dagokigu.

Produktua 2022rako merkatutuko duzue?

Guztia ongi joanez gero, posible izanen da, baina orain arte kontuan hartu ez dugun detaile bat agertuz gero, prozesua gibeleratu daiteke. Halere, helburua 2022an dugu jarria.

Prozesua gogorra izaten ari da? Esfortzu eta dedikazio handia eskatzen du eta helburua urruti ikusten da. Alde horretatik gogorra da baina aldi berean polita. Guretzat lanean ari garenez eta anbizio handiko helburua dugunez, eramangarriagoa da.

Non fabrikatuko duzue produktua? Platerak dira konpetentziarengandik bereizten gaituzte-



Zubietak ingeniariatza industrialak ikasi zuen eta ondotik, doktoretza-tesia egin zuen. Teknikerren bortz urtez aritu zen.

nak eta geuk fabrikatu nahi genituzke, gure instalazioetan, hasieran beharbada inguruko enpresa baten laguntzarekin. Produktuaren gainontzeko zatia, hasieran inguruan edo Europa mailan egin nahi dugu. Gerora ikusiko dugu produkzioaz arduratzeko gai izanen garen edo ez. Inbertsioaren arabera beharbada Asiara joan beharko dugu, gaur egun bizikletako produktuen %90 Asian fabrikatzen delako. Baina Asiaran bideratuz gero, zailagoa da produktua kontrolatzea. Hasieran behintzat hemen egingen dugu. Gainera, goi mailako produktua izateak ematen dion balio erantsia dela eta, fabrikazio kostu handiagoa onar dezakegu.

«PRODUKTU BERRITZAILEA DA ETA SALTO HANDIA IZANEN DA»

Egungo egoera ekonomikoaren eraginik sumatu duzue?

Ekonomikoki ez digu eragin, oraindik ez garelako jarduera nagusiarekin hasi. Baina falta dugun finantzazioa lortzerakoan sumatu dugu. Martxoan inbertsiogile batzuekin bilerak hitzartuak genituen eta koronabirusak sortu duen egoera honen eraginez, bertan beharra utzi behar izan ditugu. Horrez gain, ikusi beharko da lehendik interesa zutenen egoera aldatu den edo ez...

Bide pribatutik edo publikotik lortu duzue laguntza?

Batez ere publikotik. Halako apustu handiak egiteko beldur handiagoa izaten dute pribatuek. Inbertsiogile pribatu aunitzekin solas egin dugu eta

ideia gustatu zaien arren, ez dute arriskatu nahi izan. Entitate publikoen babesaz gain, bizikleta munduko afizionatuen laguntza ere jaso dugu.

Etorkizunera begira zein dira helburuak?

Proiektu hau aitzinera eramanez 2022rako merkatutatu nahi dugu. Hortik aitzinera produktu gehiago garatu nahi ditugu, alde batetik, punta-puntako teknologia erabiliz goi mailako produktuak, eta bertzetik, garapen horiek maila baxuagoetara egokitu.

Bertze proiekturik baduzue?

Lehenago bidean gelditu diren bertze proiektu batzuekin saiatu izan gara. Adibidez, bizikleta elektriko baten prototipoa egin eta bere autonomia bortz aldiz handitzea lortu genuen. Azkenean, ordea, ez genuen azken ukitua ematea lortu. Oraingoz hori baztertuta dugun arren, aitzinerago, aukera izanez gero, ideia hori eta bertze batzuk berrartzea gustatuko litzaiguke.

«HASIERAN HEMEN FABRIKATUKO DUGU ETA GERORA IKUSIKO DUGU»

Liburutegia itxita egon arren behar denean irekiko dute

Libururen bat hartzeko interesa duenak arduradunei abisatu behar die

NEREA ALZURI

Covid 19a guregana ailegatuz geroztik, gure egunerokoa aldatu da eta oraindik ere, beti-kora itzultzeko zuhurtasunez eta arduraz ibiltzea beharrezkoa da.

Herri gunean ohiko mugimendurik ez dago eta baserri inguruetan, baserriarrak eguneroko lanekin segitu dute, eta aroa aprobetxatuz, belarretan ari dira. Gainerakoan, hila-beteotan premiazko zerbitzuek lanean segitu dute: janari-dendek, okindegiak, botikak, mediku kontsultak, kooperatibak... Bertzalde, Pabloenea eta Burlada jatetxeek janari prestatua etxeetara eramateko zerbitzua martxan dute. Bertze ostatuek, hotelak, landetxeek eta aterpeak, berriz, pixkanaka jardunera itzultzea espero da.

Liburutegiak itxita segituko du, baina orain, libururen bat hartzeko interesa izanez gero, horretarako aukera eskainiko du Udalak, aitzinetik Xabi Etxague edo Joseba Pikabeari deituz.

Bertzetik, maiatzaren 16an larunbatetako meza ematen

hasi zen Martin Legarra baina segurtasun eta osasun arauak betetzea eskatu dute.

Boluntario taldea

Elkartasunaren seinale, boluntario taldea ere sortu zuen Udalak, bakarrik bizi diren adinekoei eta arrisku egoeran egon daitezkeen herritarrei laguntzeko boluntario sarea. 11 lagun bildu ziren taldean eta Leire Mitxelena zinegotzik aipatu bezala, 18 etxeetara deitu zuten zerbitzuaren berri emanaz. Denen aldetik eskerrena jaso zuten eta denak moldatu zirela erantzun zuten. Hala ere, jarraipena ere egin diete, berriz zerbitzen behar diren diren galdetuz.

Maskarak

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Elkartetik bildutako maskarak ere banatu ditu Udalak. 70 urtetik goitiko eta osasun egoera delikatuak izan duten edo gauregun duten herritarrei bina maskara banatu dizkie, kutsatzeko arrisku taldean daudelako. Boluntario batzuen artean egin dute banaketa.



XABI ZUGARRAMURDI

Herriko paraje zoragarriak

Xabi Zugarramurdi Altzurik herriko mendi eta auzoetan barna bildutako irudi erogarriekin bideo polita osatu zuen maiatzaren 7an. Dronearekin hartu zituen irudiak eta bideoan, argazkian ageri den herriko ikuspegiak gain, hainbat auzo, etxe, baserri, inguru eta mendi ageri dira.



MIKEL LARRETXEIA

Tximistak

Mikel Larretxea Bergarak irudi ikusgarriak hartu zituen maiatzaren 8an. Etxetik atera gabe eta bere ondoan izan ohi duen argazki-kamara eskuetan hartuta, tximistek egindako marrazki ederren irudiak argazkian bildu zituen. Horren erakusle da irudi hori.



igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com



LARRETXEIA EGVRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427





Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Garbigune zaharra itxita eta berria hasteko prest

Erabili nahi duenak, bota beharrekoa adieraziz, udaletxean orri bat bete beharko du

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Orain arte Simonbaitaren ondoan egon den garbigunea ezin izanen da gehiago erabili. Zerrakura jarri diote eta itxita dago.

Udalak leku berri bat pres-tatu du, Sagartxokon hain zuzen ere. Leku itxia da, burnezko hesi batekin eta giltz-tutako burnezko ate batekin; bertan kontenedoreak daude. Herritarren batek garbigunea erabili nahi izanez gero, Udaletxera joan beharko du eta orri bat bete bota behar duena zer den adierazteko. Gar-



Oraingo ezin da erabili.

biguneko giltza emanen zaio eta zaborra bota ondotik giltza berriz udaletxera itzuli beharko du. Gauden egoera berezi honek, ez du garbiguneak erabiltzen uzten beraz oraingoz esperatu beharko da.

Ainara Velez Ara izanen da idazkari lanetan ariko dena

Eguzkiñe Aiesa Andresek, orain arte udaletxean idazkari lane-tan aritu denak, Udalean zuen lanpostua utzi egin du. Hala, hemendikaitzina, bere ordez, Ainara Velez Ara izanen da Igantzi eta Arantzako Udale-tako idazkariari dagozkion lanak egiten dituen.

Pixkanaka normaltasunerako bidean

Bizitzen ari garen egoera be-rezi hontan eta gure zonaldea fase berri batean sartu denez, orain arte irekita egon diren herriko komertzio nahiz en-presa ttikiez gain, estankoa eta ileapaindegia ere irekita ditu-gu dagoeneko. Pixkanaka nor-maltasunerako bidean goaz.

Artxiboko dokumentuak berrantolatuko dituzte urte bukaerarako

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Dokumentuen azken antola-keta ofiziala 1992. urtean egin zen. Geroztik dokumentuak artxibatu egin dira baina ber-tan lanean aritu diren langileen irizpide egokien arabera. Udalak artxibatuta dagoen gutzia era ofizialean sailkatzea

eta antolatzea erabaki du. Ho-rretarako proiektua egina du eta Nafarroako Gobernuan aurkeztua, dirulaguntza jaso-tzeko. Laguntza hau ailegatzin ez bada ere, Udalak lan hau aitzinera ateratzeko diru zati bat aurreikusita du. 2020 bu-kaerarako egitea espero dute.

Talaia ondoko bidea moldatuko dute

Talaia ondoko (argazkian ingurua) bideko pareta erdi eroria dago eta hori konpontzeko Igantziko Udalak aurrekontua onartua du dagoeneko. Hurrengo asteetan hasiko dira moldatze lanak.



Aurrerantzean ere herriko berriek izanen dute txokoa

Gure herriak berriemaile berriak izanen ditu, Igantziko albisteen kontu emateko. Berriemaileak hauexek izanen gara: Maite Altxu, Ana Iturbide eta Itziar Mitxelena. Herriko norbaitek argitaratzeko moduko berriren bat baldin badu, gurekin ha-rremanetan jar dadila.

Berrizaungo kontainerrentzat leku bila

Gaur egun Berrizaungo kon-tainerrak trenbideko aparka-lekuan daude, Bide Berdean. Hori horrela, Udal eta Bortzi-rietako Hiri Hondakinen Man-komunitatea harremanetan daude kontainer horientzat leku egokiago bat bilatzeko asmoz.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimathako@gmail.com

cristalería BIDASOA
COVID-19tik babesteko neurria egindako manparak
Gipuzkoa etorb., 26 - IRUN - T. 943 61 30 63
info@cristaleriabidasoa.com



Nazien biktimen artean izan ziren eskualdekoak ere

Eskualdeko bortz lagun hil edo desagertu ziren nazien kontzentrazio esparruetan eta bertze zazpi askatu zituzten

TTIPI-TTAPA

Mauthausengo kontzentrazio-esparru naziaren 75. urteurrena dela eta, Nafarroako Gobernuak bat egin nahi izan du ospakizun horrekin, deportazioa eta nazien sarraskia jasan zuten ia 60 nafarren errolda argitaratzearekin.

Hildakoak edo desagertuak

Errolda horren arabera, eskualdeko bortz lagun hil edo desagertu ziren nazien kontzentrazio-esparruetan: **Urrozko Marcelino Larrea Bertiz, Etxalarko Luis Anglade eta Felipe Sansiñena Iribarren eta Berako Francisca Romana** (Frantzia) **Halsuet Alzate eta Victor Garcia-Serrano Retegi** (argazkian).

• **Luis Anglade** 1909ko ekainaren 19an jaio zen Etxalarren. 20 urteko Maria Manuela Anglade zen bere ama eta aita ezezaguna zuen. Erresistentziako kide izateagatik atxilotu zuten Luis Anglade Parisen eta Compiègnetik 1944ko urtarrilaren 17an abiatu zen tren-konboian eraman zuten Buchenwaldeko kontzentrazio-esparrura. Handik Flörsenburg-eko esparrura eraman zuten 1944ko otsailaren 23an eta bertan hil zen 1944ko irailaren 5ean bihotzekoak jota (*akuted herztod*). Bere heriotza-agirian ageri denez, lanbidez oihaneko lanetan aritzen zen (*waldarbeiter*) edo egur-moztaile lanetan (*holzacker*).


• **Victor Claudio Garcia-Serrano Retegi** 1916ko abuztuaren 23an jaio zen Beran. Aita, Claudio Garcia-Serrano Arias,

Madrilgoa zen sortzez, baina umetatik Hondarribian hazitakoa. Ama, Berako Maria Pilar Retegi Elgorriaga zen. Zortzi senidetatik hirugarrena zen Victor. Beran bizi ziren, baina Victorrek 16 urte bete arte Hendaiako ikastetxe batean ikasi zuen. Bordelen bizi zela, eskualdean izandako sabotaia eta atentatu batzuen ondotik atxilotu zuten 1944ko apirilaren 21ean. Fort du Hâ-ko espetxean egon zen maiatzaren 10a arte eta handik Royallie-Compiègnera eraman zuten eta Neuengammeko kontzentrazio-esparrura. Handik Fallersleben Laabergeko esparrura eraman zuten, Volkswagen enpresarako barrakak eraikitza. Victor Garcia-Serranoren heriotza-agiririk ez da ageri ez Neuengamme ezta Fallerslebengo eremuetan ere. Desagertutzat eman zuten, baina baliteke Gurutze Gorriak Ravensburgen zuen konboi-ospitale batean hil izana, 1945eko ekainaren 9an Fiktor García izeneko eri bat ingresatu baitzuten bertan.

Askatutakoak

Askatu zituztenen artean, berriaz, **Berako Eugenio Alli Ferrero, Arantzako Guillermo Altzuri Larretxea, Erratzuko Ignacio Asteasuinzarra Apeztegia, Elizondoko Alejandro Elizalde Iribarren, Azpilkue-tako Martin Lizarraga Etxepare, Beintza-Labaiengo Pedro Mariezkurrena Zozaia eta Saldiasko Jose Telletxea Otxandorena** zeuden.

• **Pedro Mariezkurrena Zozaia** 1902ko azaroaren 24an jaio



VÍCTOR GARCÍA-SERRANO RETEGUI - NEUENGAMME

NEUENGAMME ETA FALLERSLEBENGO KONTZENTRAZIO ESPARRUETAN IZAN ONDOTIK BERAÑO VICTOR GARCIA-SERRANO DESAGERTUTZAT EMAN ZUTEN

zen Beintza-Labaienen; Jose Javier Mariezkurrena Gragirena eta Josefa Zozaia Juan-korenaren semea zen.

Familiak 1919an emigratu zuen Frantziara eta Akitania-ko herrikka baten jarri zen bizitzen, Lot et Garonne departamentuko Petit Lapeyren (Allons). Pedro Mariezkurrena erresistentziako kide izateagatik atxilotu zuen Gestapok 1944ko apirilaren 2an. 1944ko apirilaren 21ean Compiègnetik abiatu zen konboian eraman zuten Neuengammera. Euskaldun aunitz omen zeuden

konboi horretan. Naziek bere ondasun guztiak kendu zizkieten ailegatzerakoan, tartean 1974an Petit Lapeyreko bere etxera bueltatu zuten zilarrezko katea zuen erlojua. 1945eko apirilaren 11n askatu zuten.

• **Martin Lizarraga Etxepare** 1920ko otsailaren 22an sortu zen Azpilkuetan. Itsasuko Agustín Lizarraga Zaldunbide eta Amaiurko Maria Etxepare Zaldua ziren bere gurasoak. Erresistentziako kide izateagatik deportatu zuten Martin Lizarraga 1943ko maiatzaren 8an Compiègnetik Sachsenhausenera. Ondotik, hegazkinak egiten zituen Heinkel enpresak Oranienburgen zuen esparrura eraman zuten eta bertan askatu zuten errusiarrek 1945eko maiatzaren 8an.

Martin Lizarragaren aitak, Agustinek, ez zuen halako suerterik izan. Dorako kontzentrazio-esparrura eraman zuten lehenik eta Bergen-Belsenara ondotik. Agustín aita 1945eko urtarrilaren 7an hil zen.


Juan Gorritirentzat marrazkiak egin dituzte eskolan

Artistak egindako proposamenari erantzun diote ikasleek eta bertze zenbait lan ere egin dituzte asteotan

MAIDER PETRIRENA

Juan Gorriti artistak eskolari proposamen polita egin zion, eskolako ikasle guztiek artelan bat egin eta berari bidaltzera animatuz. Guzti horrekin eskolatik bideo bat sortu eta Juan Gorritiri bidali diote. Berak, jaso bezain abudo, eskertza mezu bat bidali zuen.

Juan Gorriti Goldazarena (Oderitz, Larraun, 1942) artzain, eskultore, zurgin eta margolaria da, Jorge Oteiza eta Remigio Mendibururen dizipulua, bertzeak bertze. Zurgintzat dauka bere burua. Bere jaioterrian ditu lantegia, bizilekua eta erakusketa areto txiki bat. 1996an *Araitx zatiak* erakusketa egin zuen Donostiako San Telmo Museoan; 1999an, bertzeak bertze, *Oroi-menak* bilduma aurkeztu zuen Hondarribian eta urte berean Donostiako Ekain galerian eskulturak ez ezik, baserriko bizimodua islatzen zuten marrazkiak ere erakutsi zituen. 2000. urtean, bere *Baserriaren Argia* eskultura hautatu zuten emakume baserritarren ome-nezko irudi.



Juan Gorriti artista.

Egurra lantzen du bereziki "laugarren dimentsioa" hartuta. Arriben bizi da, eta bertan dauka etxe-museoa. Gorritik gure ingurua kolorez betetzeko proposamena luzatu ondotik, eskolako ikasleek artelan politak egin dituzte.

Bertze ikasgaiak

Horrez gain ere "Material gu-txi erabiliz, irudi zoragarriak" lanak egiten ari dira. Guzti honekin, behar bada, aitzinekoekin bezala bideo zoragarri bat egingen dute.

Gorputzheziketako ikasgaian ere Akrosporteko irudi ikusgarriak ikusteko aukera izan genuen ere ondorengo web orrian. Bideoak ikusgai daude: <https://sunbillakoeskola.educacion.navarra.es/web/>

Jaunartzerik ez eta igandeko mezak goizeko hamaiketan

Maiatzaren 31n egitekoak ziren lehen jaunartzeak, baina datorren urtera arte esperatzea erabaki dute. Bertze aldetik, maiatzaren 24tik aitzinera igandetako meza nagusia goizeko hamaiketan izanen da, abisu berria eman arte. Seguratas neurriak bete behar dira.

Oraindik gaueroko ekimenarekin segitzen dugu

Ohitura bilakatu da gauero 21:00etan balkoi edo leihoetara atera eta abestiak kantatu, aditu edo dantzatzea. Martxoaren 22an hasi eta dagoeneko 130 kanta jarri izanen dituzte. Auzo batzuk gehigarriak ere jartzen dituzte eta igandeko bingoarekin ere segitzen dute.



Eskolako neska-mutikoez egindako margolanetako batzuk.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Ur biltegi berria martxan da dagoeneko

Uraren kalitatea eta segurtasuna bermatua dago eta funtzionamendua eta kudeaketa hobetuko da

MARGA ERDOZAIN

Maiatzaren 15ean ur biltegi berrirako konexioa egin zen, geroztik 1.000 metro kubikoko edukiera duen ur biltegia martxan dago.

495.000 euroko inbertsioa

Azpiegitura honen kostua 495.000 euro ingurukoa izan da (%80a Nafarroako Gobernuak subentzionatu du, gainerako %20a herriko aurrekontutik ordaindu da). Azpiegitura Mariezkurrena eraikuntza enpresak egin du, Sertecna SA ingeniari-tza-aholkularitzak idatzitako proiektuarekin bat etorrira.

Funtzionamendu eta kudeaketa hobea

Obrak 2019ko irailean abiatu ziren eta otsailerako bukatuak ziren, baina larrialdi egoera

dela eta, biltegia martxan paratzeko denbora tarte hau pasatzea erabaki zuen udalak. Hemendik aitzinera uraren kudeaketa hobeki funtzionatu eta kontrolatu ahal izanen da. Uraren kalitatea ere bermatua dago baita segurtasuna ere.

Ur biltegi berriarekin Udalak jarraipena eman nahi izan die aurreko legealdian eta honetan horniduraren inguruko hobekuntzei. 2017an Udalak sektORIZAZIOARI lehentasuna eman zion, ur-ihesa eta matxurak garai antzemateko eta moldatzeko. 2019an sare berritze bat burutu zuen Elbistegi eta Ezpelura eremuetako etxebizitzetara irtenbidea emateko (194.000 euroko inbertsioa izan zen). Azken lan honetarako ere Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso zen.

Komertzioak, zerbitzuak eta ostatu zein jatetxeak irekita

MARGA ERDOZAIN

Poliki-poliki gure karrika eta balkoiak kolorea itzultzen ari da. Merkataritza guneak zabalik ditugu, hainbat profesionalen jarduerak eta ibilgailuen Azterketa Teknikoa ere martxan daude. Ostatu eta jatetxeek ere bigarren fase honetan ateak zabaldu dituzte ziurtasun eta protokoloak betez. Segurtasun neurriak zorrotz jarraituta, musukoen erabilera berrak, gure beldurrak uxatu ditugu eta bertako den-detara eta zerbitzuetara hurbiltzen ari gara. Udal bulegoak

ere laster irekiko dira, dagokion protokoloa jarraituta. Udalak bi langile kontratatu ditu herriko lanetarako eta 6 hilabete-ko jarduna burutuko dute.

Osasun etxean ere ohiko jarduerara itzuli nahi dute eta gainerako herrietako kontsultategiak zabaltzearekin hainbat jarduerak eta programa berreskuratzeko aukera izanen dute. Hori bai, koronabirusaren protokoloa eta jarraipena zorrotz jarraituta. Hezkuntzari dagokionez, ikasturtea telelanaz eta orain arte beza-la akituko dute.



Maiatzaren 25etik ekainaren 5era aurrematrikulazioa zabalik.

Askin haur eskolako matrikula prozesua martxan

MARGA ERDOZAIN

Bizitzen ari garen egoera dela eta, 2020-21 ikasturterako izen ematea etena zegoen Askin haur eskolan. Dena den, dagoeneko data berriak eta jarraibideak jakinarazi dituzte.

0-3 urte bitarteko Haur Hezikuntzako lehenetako zikloko zerbitzuak heldu den ikasturteko aurreinskripzioa edo izena ematea ikasle berrientzako maiatzaren 25etik ekainaren 5era zabalduko da. Udaletxean egin beharko da eta hiru aukera daude: hitzorduekin (948 45 00 17 telefonora deituz), egoitza elektro-

nikoaren bitartez edo posta elektronikoaren bitartez (horrela eginez gero eskatzaileek Udaletik eskaera jaso dela ziurtatzeko berriz korreo bat jasoko dute).

Matrilula uztailaren 17tik 25era bitarte

Behin betiko matrikula, bai ikasle berriak, nola dagoeneko ikastetxean matrikulaturik daudenek, uztailaren 17tik 25era egiteko epea izanen dute. Argibideak 948 45 18 68 telefonora deituta, edota askinhau-reskola@gmail.com helbidera idatziz lortzen ahal dira.



UTZITAKOA

Erreka elkartaren eguna bertan behera

Erreka Kirol elkarteak aurreikusitako zituen hitzorduek bertan behera gelditu dira: Errekaren eguna (ekainaren 6an), Josetxo Ezkurra memoriala eta txirrindulari topaketa. Elkartetik indarberriturik itzuliko direla adieraztearekin batera, "errekazale familiako" guztiei animoak ailegarazi nahi dizkiete.

Herriko bestarik ez dela izanen erabaki du Udalak

Ez Trinitate Egunik ezta herriko bestarik ez dute izanen aurten eta Jaunartzeak gibelatzeko asmoa dute

ARKAITZ MINDEGIA

Bertze herrietan bezala, gurean ere, udaberri hasiera arraroa izan dugu. Pixkanaka, pausoz pauso aitzinera egiten ari gara eta itxialdia pauso berriak ematen ari dela ikus daiteke komertzio txikien martxan. Herriko denda goizez eta arratsalde (17:00etatik 19:00etara) irekita dago (ortzegunetan goizez bakarrik) eta Eider ileapaindegiak ere atea ireki ditu.

Baina, egia erran, konfinamenduaren faseak ikusita, badira bertan behera utzi behar edo atzeratu behar izan diren ospakizunak. Maiatz hondarreen ospatzekoak ziren neska-mutikoen jaunartzeak uda aldera gibelatuak izan dira eta Trinitate Eguna eta herriko bestak bertan behera gelditu dira.

Pulunpa eskola

Hirugarren hiruilekoan sarturik daude gure herriko ikasleak, etxetik segitzen dute, bertze eskoletan bezala eta horrela jarraituko dute ikasurte bukaera arte, Internetez, on-line. Irailean hasiko den ikasturtean 70 ikasle eta 11 irakasle ariko dira Pulunpa eskolan eraikin berriari begira, eta seguru bertara joateko gogotsu izanen direla.

Udal langileak

Eskola eraikitzeko lanak ez dira herrian egiten ari diren bakarrak. Udalak, herriko lanak egiteko, bi langile kontratatu ditu. Xuban Altzu Elizalde herritarra eta Donamariako Jesus Mari Lasaga dira arduratu hori dutenak.



Aurten ez da ez herriko bestarik ezta Trinitate Eguneko ospakizunik ere izanen.

DESKONTUAK

MALERREKA

TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!

%10 DESKONTUA pajama eta barruko arropetan Zazpigerutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52	%5 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 100etik gorako erosketetan Promozioetan ezik Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27	%5 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71	%5 DESKONTUA kontsultetan T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com
%5 DESKONTUA kosmetikan %5 DESKONTUA oparietan 50etik gora. Promozioetan ezik Amezti, 1 DONEZTEBE T. 948 45 01 63	%10 DESKONTUA Eliza, 18 behe DONEZTEBE T. 948 45 02 86	%10 DESKONTUA hamar saloko bonoan Elizagibela, 4 behe DONEZTEBE T. 607 85 32 08	%10 DESKONTUA 30etik gorako erosketetan Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12
%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30etik gorako erosketetan Amezti, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25	%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com	%5 DESKONTUA zakur eta kaluen pentsuan Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45	%10 DESKONTUA oinetakoetan Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89



Iaz Bazkideen Egunean omendutako batzuk. FOTO ZALDUA

Bazkideen Egunean omendu beharrekoen datuak biltzeko deia

Omendu behar den norbaiten datuak izanez gero, ekainaren 10era bitarte eman daitezke

PABLO IRASTORTZA
Aspalditik egiten duten Bazkideen Eguna ospakizun hunkigarria da elkarteko kideentzat. Izan ere, egun horretan, 50 edo 60 urte ezkontuta daramatzatenak eta 85 edo 100 betetzen dituzten elkarteko kideak omendu ohi dituzte.

Urriaren 5erako aurreikusia
Hasiera batean behintzat, egun hori urriaren 5ean, astelehenean, ospatzekoa dute baina egoeraberezian gaudenez gero, gaur gaurkoz, ez dago hori baieztatzerik.

Edozein modutan, momentuz, lanean segitzen dute. Hortaz, herri bakoitzeko ordezkariari omendu behar diren kideen datuak bildu eta Doneztebeko bulegoan jakinarazteko eskatu diete.

Datuak ekainaren 10erako
Datuak helarazteko ekainaren 10era, asteazkenera, arteko epea zabaldu dute.

Horiek bilduz, batetik, hurrengo buletina osatzeko asmoa dute; eta bertzetik, egun horretarako jende kopuru zehatzaren berri izan nahiko lukete.

Elkarteko kideei animo mezua zabaldu diete

Lerro hauen bidez, elkarteak osasun agintarien aholkuei kasu egiteko eta animoari eusteko mezua zabaldu nahi izan du: «motel antzean bazaude bizkortu, eta animo denei, honek ez gaitu eta betirako zapuztuko» adierazi dute irmoki.



Osasuna zaintzeko deia egin dute.

2.985 kide ditu Arkupeak elkarteak

Herria	Bazkide kopurua	Emakumeak	Gizonak
Urdazubi	55	30	25
Zugarramurdi	29	16	13
Amaiur	35	24	11
Azpilkueta	23	15	8
Erratzu	78	43	35
Arizkun	46	28	18
Elbete	10	5	5
Elizondo	263	182	81
Lekaroz	20	13	7
Gartzain	11	7	4
Irurita	75	42	33
Ziga	18	12	6
Aniz	7	5	2
Berroeta	4	2	2
Almandoz	30	18	12
Arraioz	26	16	10
Ornoz-Mugairi	51	34	17
Oieregi	7	5	2
Narbarre	26	19	7
Legasa	55	32	23
Doneztebe	199	116	83
Gaztelu	16	10	6
Donamaria	48	28	20
Oiz	24	15	9
Urroz	24	14	10
Beintza-Labaien	34	21	13
Saldias	18	9	9
Elgorriaga	37	20	17
Ituren	56	32	24
Zubieta	40	27	13
Eratsun	32	16	16
Ezkurra	24	13	11
Goizueta	71	48	23
Leitza	407	241	166
Arano	7	5	2
Areso	19	12	7
Arantza	82	48	34
Bera	329	209	120
Etxalar	122	78	44
Igantzi	107	58	49
Lesaka	122	82	40
Sunbilla	164	95	69
Eskualdetik at	134	94	40
Guztira	2.985	1.839	1.146

ITURRIA: ARKUPEAK



PROMOCIONES **MALERREKA**

Izenak dioen bezala, Malerrekako enpresa bat gara. Bertakoak. Donezteben akitzeaz daukagun bi blokeko promozio bat egin dugu. Oraingo honetan, proiektu bera Sunbilla egiteko asmoa dugu, bertako gazteria herrian geldi dadin eta Sunbilla bizirik jarrai dezan.

Eraikitze baldintzak ziurtatuak daude!

Udalak eginen den lursailak etxebizitzak egiteko baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatu digu. Horretarako ohikoak diren baldintzak bete eta etxebizitzak erakitzen hasiko diren momentuan behar den eraikuntza baimenak emanen ditu.

Eginen den etxebizitza blokeak, ez du parean egin zirenekin zerikusirik; ez materialek, ez proiektuak ezta eragileek ere.

- ✓ *Garantia osoko etxebizitzak dira*
- ✓ *Kanpo eta barne isolamendu paregabea*
- ✓ *Egur zola R5a*
- ✓ *PVCko leihoak, kristal bikoitzeak*
- ✓ *Zoru eta paretak portzelanikoak*
- ✓ *Sukalde eta komunak horniturik*
- ✓ *Gas eta aerotermaiekin*
- ✓ *B kalitateko efizientzia energetikoa*
- ✓ *Erosle bakoitzaren neurrira egindako etxebizitzak*

Etorri, proiektua ezagutu eta aukera aprobetxatu!

Hau guztia argitu eta informazio zuzena emateko bilera informatibo bat eginen dugu udaletxeko aretoan Covid-19ak utzi bezain laster. Bertara, gure talde tekniko eta komertziala joanen dira.

Horregatik, bertara hurbiltzera animatu nahi zaituztegu.

Gustura azalduko dizuegu Sunbilla herriarentzat egin dugun proiektu ederra. Bitartean, edozein argibidetarako deitu (Aitziber 629 95 11 70).

Animatu eta ezagut gaitzazu!



Sunbilla
neurrira egindako
etxebizitzak



AUKERA BIKAINA Sunbilla!



9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak.

3 edo 2 logelakoak, sukaldea, egongela,
2 bainugela, trastelekuak
eta lurpeko garajeak.

3 atiko

Lokal komertzialak.

Informazioa: **629 95 11 70** (Aitziber)




**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



- ✓ Zure beharren arabera finantziarioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin.

Zure etorkizuna, gure erronka

*Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.*



Telekomunikazioen elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Mantentze lan elektronikoa



Eraikuntza eta topografia

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Eskaintza berritua eta osoa, Hezkuntzako Lege Organikora egokitua (LOE), Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dituena industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta (goizez)

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik, goizez eta bi kurtsoan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egiteko ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsaldez)

Bide honek Zikloetako moduluak era independentean ziurtatzeko aukera ematen du. Ordutegia ikaslearen beharretara egokitzen da. Lana eta bestelako eginkizunak ikasketarekin tartekatuz, hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratzeko aukera du ikasleak.

Erdi Mailako zikloetatik orain zuzenean Goi Mailako zikloetara

Eleaniztasuna

Eleaniztasuna frantsesez edo ingelesez (talde bat osatzeko gutxieneko kopurua osatuz gero). Ingelesezt: Fabrikazio Mekanikoa, Instalazio Elektroteknikoak eta Obra Zibileko Proiektuak. Frantsesez: Zurgintza eta Altzarigintza.

Instalazio Elektroteknikoak eta Obra Zibileko Proiektuak. Frantsesez: Zurgintza eta Altzarigintza.

Lanbide Heziketa Duala


Ikas-ekinezko heziketan oinarritua den modalitatea da. Alemaniako modelooren antzera, ikastetxeetako prestakuntza lantegietako prestakuntzarekin konbinatzen ditu. Hartara, ikasleak ezagutza teoriko eta praktikoa guztiak bereganatzen ditu ikastetxearen eta lantegiaren artean, lan-kontratu batekin eta sektoreko lan hitzarmenaren arabera soldata kobratuz.

Lehen Aukera Programa

Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen programa berri hau Prestakuntza Ziklo bat bukatu duten ikasleentzat prestatua dago, enpresa batean ordaindutako praktikak eginez ikasleek lan-esperientzia har dezaten.



Mekanika



Elektrizitatea



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 666 010
info@fpbidasoa.eus



www.fpbidasoa.eus

Kokapena:

Elizatxo, 10

Irungo erdigunetik 300 metrora,

Elizatxo etorbidea eta Aduana

kalearen bidegurutzean.

GPS:

N 43° 20.198'

W 1° 47.897'



MATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 19ra biak barne

IKASTETXEA ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, euren ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzako enplegu-aukera eta segimendu pertsonalizatua egiten du ikastetxeak helburu horrekin prestatua duen lan-poltsaren bitartez. Lan-Poltsa honi esker, enprestatik datozen lan-eskaerak kudeatzen ditugu eta gure ikasleek lan-merkatuan sartzeko aukera dute edo, kasuaren arabera, euren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzailatzaren eta autoenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hamabost enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Berrikuntza-zerbitzuak, enpresekin lankidetzan

2020 / 2021 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza egunez eta gauez*

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza

Gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN
PROGRAMAZIOA*

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK
ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK*

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK



Duela urte batzuetako sanjuanetan gazteak sokatiran. ARTXIBOA

Saldiasko sanjuanak bertan behera

Herriarren segurtasuna bermatzeko aurten bestarik ez egitea erabaki du Udalak

AINTZANE LEIZA

Inguruko beste hainbat herri-tan bezala, Saldiasen ere aurtengo San Juan bestak bertan behera uztea erabaki dute Covid 19-aren ondorioz bizitzaren ari garen egoera dela eta. Ez da erabaki erraza izan. Herri txikia izanik jende pilaketa handirik ez da izaten, baina

zuhurtziaz jokatzeko tokatzen denez, eta bertako herritarren segurtasuna bermatzeko denez garrantzitsua, azkenean, horrela egitea erabaki du udal taldeak.

Seguru daude, herritarrek datorren urtekoak gogo handiagoarekin hartuko dituztela.

Sunbilla, Doneztebe eta Donamariako igerilekuak itxita

Hiru herrietako udalek denboraldi honetan igerilekuak ez irekitzea erabaki dute

TTIPI-TTAPA

«Covid-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz» Donamaria, Sunbilla eta Doneztebeko udalek udan udal igerilekuak ez irekitzea erabaki dute.

Natalia Rekarte Oteiza, Amets Inda Gorriaran eta Xanti Uterga Labiano Donamaria, Sunbilla eta Doneztebeko alkateek sinatutako idatzian, «kostata

hartutako erabakia» izan dela onartu dute, baina «gobernuak ezarritako segurtasun neurri guztiak betetzea hagitx-hagitx zaila» zaiela diote. Aitortu dutenez, «badakigu gure herri-tarrentzat ez dela erabaki egokia izan %100ean baina momentu honetan, guztiaren gainetik, osasun segurtasuna jarri nahi dugu».



Donamariako igerilekuak itxita segituko du udan, baita Sunbilla eta Doneztebekoek ere.

Jarri zaitez gurekin harremanetan informazio gehiago lortzeko.

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Mantentze elektromekanikoa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Automatizazio eta robotika industrial
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Administrazioa eta finantzak

AURREMATRIKULA

EKAINAREN 1etik 19ra

www.irungolasalle.eus
943 62 84 11
fp@irungolasalle.eus
Elizatxo etorb. 14-16 20303 IRUN

Bestaberri Eguneko ospakizuna bertan beheiti utzi dute

Herriko festarik izanen den edo ez erabakitzeak biltzekoak ziren

FERMIN ETXEKOLONEA

Udalak, berriz ere, atek ireki ditu eta herritarrei aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen hasia da. Dena den, joan nahi duten guztiei hitzordua hartzeko deia egina die.

Egoerara egokituz, lanean ari dira eta hondarreko asteotan soberan gelditu diren bost egur lote eskaini dizkie herritarrei. Interesa dutenek eskaera bete dezakete.

Erabaki batzuk ere hartu behar izan dituzte, zenbait ospakizun ate joka baitzituzten. Ekainaren 14an egitekoa



Ekainaren 14an ospatzekoa zen.

zuten Bestaberri Egunez ez egitea adostu dute.

Amabirjin festei dagokienez, horiek eztabaidatzen hasiak ziren. Dena den, lerro hauek idazterako orduan, erabakia hartu gabe zuten.



Ainhua Larreak eta Garbiñe Olazarrek esker ona adierazi diete zahar etxekoei.

Zahar etxekoei babesa adierazteko bertsoak kantatu dizkiete

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak zahar etxeetan izan duen eraginaren harira, elkartasun keinu ederra izan dute Garbiñe Olazar iturendarrak eta Ainhua Larrea zubietarrak. Gitarraren doinuak eta bi kantarien ahots goxoak uztartuz, esker oneko hitzak bidali dizkiete, zahar etxeeta-

ko egoiliarrei, euren familiei eta langile guztiei. Bi gazteek barrutik ezagutzen dute zahar etxeetako lana. Benito Mennin lan egina da iturendarra eta Elizondoko zahar etxean zubietarra. Babesa adierazi nahian, Iker Gorosterrazuri bertso batzuk sortzeko eskatu zioten (bideoa ERRAN.EUSen).

donbosco
Lanbide Heziketa

IKASKETA ESKAINTZA ETA ZERBITZUAK
Metodologia ETHAZI (Etekin handikoa) | Lan praktika atzerrian. ERASMUS Lan sarteak. LEHEN AUKERA | LH DUALA Txandakako Erregimenean ESKAINTZA PARTZIALA | Heziketa Zikloak ELEANITZA modalitatean

CIFP DON BOSCO LH II
S. Marcos Errep. z/g Apdo. 101 - 20100 ERRENTERIA
T. 943 51 04 50 - F. 943 52 92 20
donbosco@fpdonbosco.com
www.fpdonbosco.com

ikasLAN LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

AUREMATRIKULA:
ekainaren 1etik 19ra

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

FAMILIA: AUTOMOZIOA

- Ibilgailu automobilen elektromekanika. LOE zikloa (A eta D)
- Karrozeria. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Soldadura eta galdaragintza. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: ELEKTRONIKA

- Telekomunikazioen instalazioak. LOE zikloa (A, B eta D)

FAMILIA: INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

- Bero ekoizpenen instalakuntzak. LOE (A eta D)
- Klimatizazio eta hotz instalakuntzak. LOE (A eta D)

FAMILIA: KIMIKA

- Kimikagintza. LOE zikloa (A, B eta D). TOLOSako egoitzan

Lortu bi tituluak 3 urtetan!!!

GOI MAILA

FAMILIA: AUTOMOZIOA

- Automozioa. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Metal eraikuntzak. LOE zikloa (A, B eta D)

FAMILIA: INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

- Instalazio termiko eta fluidodunen mantenimendua. LOE (A, B eta D)
- Mekatronika industriala. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: ELEKTRONIKA

- Elektronika mantentze-lanak. LOE zikloa (A eta D)

FAMILIA: KIMIKA

- Farmazia produktuen, bioteknologikoen eta antzekoen fabrikazioa. (LOE, A eta D)
- Analisisiko eta kalitate kontrolako laborategia. LOE zikloa (A eta D)
- Kimika inustrial. LOE zikloa (A, B eta D). TOLOSako egoitzan

LANERAKO HEZIKETA

- Lanbide Kualifikazioen Katalogo-ikastaroak
- Eskaintza-ikastaroak
- Eskaera-menpeko ikastaroak
- Lanerako heziketa ikastaroak
- Heziketa-beharren diagnostika (HBDak)
- Lanbide heziketa DUAL ALTERNANTZIAN
- Lehen Aukera

«Foku aktiborik ez dugun arren, ezin gaitezke erlaxatu»

IOSUNE URANGA LEITZAKO OSASUN ETXeko ERIZAINEN ARD.

E. IRAOLA LEITZA

Covid-19az gaixotutako hamar kasu baino ez dituzte baiez-tatu Leitzako osasun etxean (maiatzaren 19an). Datuak alde dituzte, baina horrek herriarrak gehiegi erlaxatzea eragin duela uste du Iosune Uranga Agirre Leitzako osasun etxeko erizainen arduradunak: «hainbatek ez dituzte gure gomendioak betetzen, horrek dakarren arriskuarekin». Arduraz jokatzeko deia egin die Leitz, Areso, Arano eta Goizuetako herritarrei, are gehiago herritarrek mugimendurako askatasun gehiago dute-nean.

Arrazoi argirik gabe, «zortea aldeko» izan dutela aipatu digu Iosune Uranga Agirrek Leitzaldeko koronabirus kasuak mahai gainean jarritakoan: «gaixo dagoen jendea ez delako herrira etorri».

Guztiak positibotzat jo

Gaixotasunaren aurrean osasun etxeko langileek hasieratik izandako jarrera zorrotza ere lagungarri izan da bere ustez: «sintomaren batekin hasten zen jende guztia eta bere etxeak isolatuta eduki ditugu, gaixo baleude bezala. Coronavirusaren probak egin ez zirenez, guretzat denak positiboak ziren».

Gerora jakin dute hasiera hartan positibotzat jotako hainbat ez zirela hala, baina bitartekorik ezean zuhurtziaren aldeko apustua izan zen beraia: «testik ez genuen hasieran eta material falta izugarria izan genuen». Test azkarrak iristen hasi zaizkie orain eta isolamenduan egon direnei pixkanaka deitzen ari



Iosune Uranga erizaina. UTZITAKOA

dira txanda eman eta proba egiteko: «horrela gaixotasuna pasa duten edo ez jakin deza-kegu. Etxez etxeko langileei, adibidez, egin dizkiegu test azkar hauek».

Bitartekoak lortu ondotik, pazienteekin jokatzeko modua bestelakoa da: «sintomaren batekin hasi bezain laister PCR proba eskatzeko aukera daukagu, eta froga horren erantzuna etorri arte bakarrik egoten dira isolamenduan sintomekin dagoen persona eta bere bizikideak».

PCR frogaren bidez pertsona bat momentu horretan kutsatua dagoen jakin dezakete: positibo ateraz gero, pertsona hori isolamenduan jarriko genuke baita bere bi-

**«MATERIAL FALTA
IZUGARRIA IZAN
GENUEN
HASIERAN»**

zikideak ere. Gaixoarekin kontaktua izan dutenak ere zaindu beharko genituzke, sintomaren bat izan ezkerro froga egiteko lehenbailehen. Normalean froga hori egiteko txanda bi edo hiru egunetan ematea lortzen dugu».

Egokitu beharra

«Txertoa atera bitartean» beraien lan egiteko modua goitik behera aldatu dela ere nabarmendu du Urangak: «orain ahal diren kontsulta guztiak telefonoz egiten saiatzen gara». Telefonoz moldatu ezin dutenetan, osasun etxean artatzen dituzte baina protokolo zorrotza betez: «jendea itxaron-gelan ezin da pilatu, emandako orduak errespetatu behar-ko dira jende pilaketak sahies-teko eta segurtasun distantziak mantendu behar dira. Gainera, osasun etxera sartzeko txirrina jo beharra dago eta gure baimena behar dute sartzeko. Maskara jarrita eramatea derrigorrezkoa da, eta eskuak sarreraren gel hidroal-koholikoarekin garbitu behar dituzte».

Kaleko giroa

Kaleko giroaz galdetuta, «jendea oso erlaxatua» dagoela ikusten dute. Izan ere, Leitzaldean oraingoz foku aktiborik ez dagoen arren, «birus hau ikusezina da eta arriskua hor daukagu jendearen joan-etorriak ez direlako gelditu». Alarma egoeran fasez aldatuta herritarrek mugimendurako askatasun gehiago izanen dutela jakinik, arduraz jokatzeko eskaera egin dute osasun etxeko langileek: «kontuz ibili eta ahl duten neurrian bakoitzak bere burua babes dezala, honela guztiok babestuago egonen garelako».

**«ISOLAMENDUAN
EGONDAKOEI
TESTAK EGITEN ARI
GARA PIXKANAKA»**

Konposta plantaren inguruko galdeketa egingo du Udalak

Elusederren Mendialdea Mankomunitateak eraiki nahi duen konposta egiteko plantaren inguruan aurrera egin edo ez erabakitzerakoan herritarren iritzia kontuan hartu nahi du Udalak. Horregatik, datozen asteetan herri galdeketa bat egingo dute gaiaren inguruan. Irunberriko planta ikustera ere joatekoak ziren udal ordezkariak, tankerako gune bat bertatik bertara ezagutzeko. Bisita horren ondotik informazio guztia herritarrei jakinaraziko diete etxeetara bidaliko dute ohar baten bidez.

Sanpedro festak bertan behera gelditu dira koronabirusagatik

Koloretako atorra jantzi eta eskean ibiltzeko heldu den urtera arte itxaron beharko dute Lagunarteko kideek. Gaur gaurkoz, festa ohiko moduan ospatzeko baldintzak ez direla betetzen ikusita, ekaineko azkeneko asteburuko ospakizunak bertan behera uztea erabaki dute. Izan ere, etxe eta baserrietako erronda osatu bitartean, kontu, kanta eta dantzarako aitzakia izaten da sanpedroen bereizgarrietako bat; herritaren artean sortzen den hartu-eman berezia. Elkartean ere bildu ohi dira afaltzeko, ostiralean Lagunarteko afarian eta larunbatean herri afari jendetsuan. Herritarren osasuna zaintzea lehenetsi eta festaren funtsari eusteko aurten sanpedrorik ez ospatzea erabaki dute. Hel-du den urtean gehiago eta hobeki. Sanjuanetako ospakizunak eta herriko festak ere zintzilik daude udalak erabaki bat hartu orduko informatu dituen herritarrek.



Ibai, Eduardo, Jon, Ainara eta Lorea Sastizar landetxeko atarian. UTZITAKO ARGAZKIA

«Konfiantzazko klima eskaini behar diegu bezeroei»

AINARA OMATXEBARRIA ARESOKO SASTIZAR LANDETXEKO JABEA

Covid-19aren eraginez lan egiteko modua egokitu, ikasi eta berrikasten ari dira. Argi dute kalitateko zerbitzua eskaintzen segi behar dutela eta bezeroa seguru sentitzea dela lehentasuna

E. IRAOLA ARESO

Duela bost urte, amets bati segika, hiritik landa eremurako bidea hartu zuen Remirez-Omatxebarría familiak. Gerotik Aresoko Sastizar baserria dute bizitoki eta bizibide, bertan landetxea irekita. Momentu gozoan harrapatu zituen alarma egoerak, baina mundua gelditu ondotik erreserbak bertan behera nola gelditzen ziren ikusi dute. Orain egokitu, eutsi eta beraien eta bezeroen ilusioa berpizteko gogoz ari dira lanean.

Egun batetik bestera dena bertan behera gelditu zen...

Erreserba guztiak bertan behera gelditu ziren. Hasieran shock handia izan zenik ezin dut

ukatu, baina saiatu ginen egoerari buelta ematen. Mundu guztia zegoen berdin. Ez genekien zenbat iraungo zuen egoera honek eta oraindik ere ez dakigu. Konfinamendua arintzen ari da orain, lehenengo fasean gaude, baina COVID-19a hemen dago, gure artean, horrekin bizi behar dugu eta horrekin zabaldu behar dugu gure negozioak. Ikasi egin beharko dugu nola aurre egin, nola eutsi. Eustea da minimoetara iristea eta bilatzea nola indartu ilusioa eta lan martxa hartzen joatea.

Landetxea egokitu eta zerbitzua aldatu beharra izanen duzue?

Jendeak zer behar duen ulertu beharko dugu, zer eskatzen

duen ikusi eta gu horretara egokitu. Landetxearen alokairu osoa indartzea da orain gure asmoa, gosariak ere ez ditugu zerbitzatuko aurrerantzean. Orain arte gure presentzia garrantzitsua iruditzen zitzaigun, orain, ordea, bezeroei toki seguru bat eskaintzea da garrantzitsuen. Konfiantza hori eman behar diezu oporrak behar dituztela erabakitzen dutenei. Horrela pixkanaka

«NATURA DUGU ESKAINTZEKO, HORI DA GURE INDARGUNEA»

jendea mugitzen hasia da gure asmoa.

Egoera honetan lan egiteko jarraibideak jaso dituzue?

Nafarroako Gobernuak turismo saila online ikastaroak eskaintzen ari zaigu, doan. Oso baliagarriak eta oso interesgarriak dira. Zailena da bi estetika behin gutxienez, gure burua birkokatu, baldintza berriak ikusi eta nola jokatu ikasten ibili beharrek gaitza da.

Ze neurri berezi hartuko dituzue?

Lehen bezeroei ongietorria eman eta tratatu hurbila eskaintzen saiatzen ginen, orain kontaktu fisiko hori ekidino dugu. Bideo bat grabatuko dugu etxearen funtzionamendua osoa azaltzeko. Ordainketak guztiak ere online egingen dira. Desinfekzioa tentuz zaindu behar dugu, babes neurriak hartu eta arropak tenperatura altuan garbitu. Ez da gelditu behar bezeroak ukitutako ezer garbitu gabe; lehen garbiketa garrantzitsua bazen, orain are gehiago. Dekorazioko elementu guztiak ere momentuz kenduta dauzkate. Gel hidroalkolikoak ere gela guztietan eta harreraren eskuragarri izanen dituzte.

Zer aurreikuspen dituzue datoen hilabeteetarako?

Egoerari eustekak izan behar du gure helburua, ez irabazi handiekin amestea. Hasi zaigu jendea informazio eske eta udako erreserba pare batek ere indarrean segitzen dute oraindik. Argi dugu orain arte bezala, kalitatea eskaini behar dugula. Bezeroak seguru sentitu behar du. Izan ere, une honetan, familia batek bidaiatzeko dirua eduki dezake, baina beldurra sentitu. Mugak ireki eta garraio bideak indartzea ere garrantzitsua da guretzat.

Baikorrak izan behar dugu. Egoera hau pasa egingo dela pentsatu. Gure alde dugu natura dugula eskaintzeko. Natura aukeratzeak ziurtasuna berez ematen duela eta gainera, espazio ireki batean lan egiten dugu.



E. IRAOLA

Baserritarren azoka martxan da

Maiatzaren 9an, larunbatean, egin zuten Leitza eta Aresoko baserritarren aurreneko azoka. Aurretik egindako eskaerak biltzera batzuk eta momentuan bertan erostera besteak, jendearen joan-etorria handia izan da. Aurrerantzean larunbatero izanen dute hitzordua 10:30etik 12:30era.

Aralar Musika Eskolako matrikulazioa

Maiatzaren 25etik ekainaren 7ra bitarte Aralar Musika Eskolako ikasleek heldu den ikasturteko matrikula egiteko aukera izanen dute online edo udaletxean. Musika tresnak jotzen ikasi, abesbatza, solfeo... aukera zabala izanen dute eskuragarri.

Inguruarte berritzeko proiektua atzeratu egin da

Pasa den urrian udalak eta herritar ugarik Inguruarte berritzeko proiektua garatu zuten Lurpajistikin. Baimen administratiboak ez dira garaiz heldu, beraz ez dute LGP-PDR dirulaguntza eskuratu oraingoan. Proiektua atzeratu eginen da momentuz.

Herriko ostalariekin elkarrizketan ari da udala itzulerako neurriak adosteko

TTIPI-TTAPA

Alarma egoerak gogor astindutako sektoreetako bat izan da ostalariena. Horregatik, beste sektoreetako ordezkariak egin bezalaxe, ostalariak ere bilera egin dute udal ordezkariak. Hauetako batzuk interesa erakutsi dute terrazak

irekitzen hasteko eta prozedurak eta neurriak zehazten ari dira pixkanaka. Elkarrekin aztertzen ari dira lanerako itzulera ahalik eta goxoen izan dadin landu beharreko bideak zeintzuk diren. Aurrerantzean ere kontaktuan segituko dute.

Hainbat udal zerbitzu berriz ere publikora irekita

Maiatzaren 25etik zuzeneko arreta eskainiko dute Udaletxean eta liburutegia ere laster irekiko dute

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25etik aurrera herritarrei zuzeneko arreta ematen hasiko udaletxean. Lane-gunetan 09:00etatik 13:00etara egonen da zabalik eta biztanleriaren erroldari buruzko gestioak, ziurtagiriak eta bolanteak, eskabideen eta agirien erregistroa eta ofizio eta jakinarazpenak hartzeko udaltxera jotzeko aukera izanen dute herritarrek. Dena den, neurri zorrotzak hartuko dituzte: sartzeko higie-neurriak betez eta segurtasun-tarteak zainduta».

Liburutegia laster martxan

Hau idazterakoan irekierako data zehaztua ez bazen ere, konfinamendu neurriak arindu eta fasez aldatzeak liburutegiaren irekiera ahalbidetuko dute.

Udala eta liburuzaina aurrerantzean segi beharreko prozedurak zehazten ari dira: maileguak hartu eta itzultzeko liburutegira banaka sartzea, maileguan egondako liburuak berrogeialdian jartzea, garbiketa zorrotza egitea... ohikoak ez diren neurriekin baina laster gozatu ahal izanen dute herritarrek liburutegi zerbitzuaz.

Garbigunea ere irekita

Mendialdea Mankomunitateak, berriz, maiatzaren 14an ireki zuen herriko garbigunea. Dena den, alarma egoeran gauden bitartean garbigunera hondakinak eramateko ezinbestekoa izanen da aurretik hitzordua eskatzea 678 36 42 33 telefonora deituta. Astelehen, astearte eta ostegunetan egonen da irekita.



UTZITAKOIA

35 urteren ondotik erretiroa

Guria tailerrean lanean aritu dira 35 urtez Pako eta Rita. Ongi merezitako erretiroa hartzeko momentua iritsi zaie. Eskerrak eman nahi izan dizkiete beraien bezeroei: «35 urtez lanean aritzeko aukera izatea herri bizi baten seinalea baita». Herrian kontsumitzen segitzeko aldarria eginez agurtu dituzte bezeroak.



Tifanitxo eta Zentroa izenez ere ezaguna da eraikina. ARTXIBOKOA

Iriartenea egokituta auzolanean txukuntzeko prest

Barneko lan gehienak bukatu dituztela jakinarazi du udalak eta 157.697,55 euroko kostua izan dute azken lan hauek

TTIPI-TTAPA

1555eko eraikina da Iriartenea. Donostiako dantza-leku eza-gun baten izenari zor zaio eta Tifanitxo (edo Zentroa) bezala ezagutzen dute askok, 1970etik aurrera beheko solairuan dantza egiten zelako. 1995etik aurrera, berriz, gasetxe bezala egin da ezagun,

beheko solairua taberna eta lehen solairua Gazte Asanbladaren elkargunea izan baita urte luzez.

157.697 euroko inbertsioa

Hemendik aurrera ere, herriko hainbat eragilek erabilera emateko moduan izanen da. Izan ere, eraikinaren egoerak

okerrera egin zuela eta, udalak lau paretak eta teilatua berritu zizkion duela lau urte eta aurten, abendutik martxora bitartean, eraikina barrutik egokitzeko lanak egin zaizkio, azken txukunketen esperonan utziz.

Azken lan hauek 157.697,55 (BEZ barne) euroko kostua izan dute, eta Nafarroako Gobernua eta Feaderrek (Landa Garapenarako Europako diru funtsak) finantziatu dute, 50.000 euroko dirulaguntzarekin.

Gainera lan hauek aprobeztatzuz lehen pilotarien aldagelak ziren txokoan, komun publikoa egin du, horrela aspalditik zetorren herritarren eskaerari erantzunez.

Auzolanean margotu eta txukunduko dute

Hemendik aurrera azken lanak egitea faltako da. Argiteriaz udala arduratuko da, eta Covid-19ak sortutako alarma egoera bukatzen denean, azken ukituak emanen dizkiote eraikinari. Auzolanean margotu eta txukunduko dute. Horrela, orain artean bezala, eraikin honen erabilera publiko eta herritarrarekin jarraitu ahal izanen dute,

Eskolako frontoia ireki du udalak hainbat baldintzekin

Xalto eskolako frontoia ireki du udalak, eta dagoeneko aritu daitezke bertan, herriko pilotariak. Hori bai, kirolari federatuek edo profesionalek bakarrik izanen dute erabiltzeko aukera, eta bakarrik aritu beharko dute bertan. Frontoia erabili nahi duenak, aldez aurretik eskatu beharko du txanda, udaletxera deituta: 948 51 40 06.

Hainbat baldintza

Udalak gune hau erabili hau izateko erabiltzaileek bete beharreko hainbat baldintza zehaztu ditu. Kirolari bakoitza egunean ordubetez aritu ahal izanen da gehienez, eta frontoia erabiltzeko ordutegia ere zehaztu dute: astean zehar, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egonen da irekita. Larunbat eta igandeetan, goizetan irekita egonen da, baina arratsaldetan itxi egingen dute. Gainera, erabiltzaile bakoitzak bere txanda bukatzean, frontoia garbitu eta desinfektatu egin beharko du, hurrengo kirolaria sartu aurretik.



UTZITAKOA

Lan faltarik ez suhiltzaile boluntarioek

Azken boladan atsedenerako tarte handirik gabe ibili dira herriko suhiltzaile boluntarioak. Estolderia garbitu, maskarak banatu, desinfekzio lanak egin... eta osasun larrialdi baten aurrean ere erantzun bikaina eman dute. Bistakoa da herrian halako talde bat izateak duen garrantzia.



UTZITAKOA

Garbigunea zabalik hitzorduarekin

Astean hiru egunez, astelehen, astearte eta ostegunetan irekiko du Mendialdea Mankomunitateak Goizuetako garbigunea. Nahi duenak hondakinak bertara eraman ahal izanen ditu, baina aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da. Horretarako, 678 36 42 33 telefono zenbakira deitu behar da.

«Erne egon behar dugu birusak oraindik hemen segitzen duelako»

KORO ARRUTI PEÑA ARIZKUNGO FARMAZIALARIA

Covid-19ak sortu duen ezohiko egoerak farmazialarien eguneroko martxa ere aldatu du. Arrutiren arabera, «dezente». Hainbat segurtasun neurri hartu behar izan ditu

G. PIKABEA | ARIZKUN

2002tik Baztangoizako herri-tarrak artatzen ditu Koro Arruti Peñak bere farmazian. Halaxe segitzen du Covid-19ak sortu duen alarma egoera honetan ere, baina hainbat segurtasun neurri hartuta. Botikak berdin saltzen baditu ere «lan gehiago» egitea egokitu zaio.

Koronabirusak zertan aldatu du zure eguneroko martxa?

Dezente aldatu du. Hainbat segurtasun neurri hartu behar izan ditugu. Alde batetik, tar-tea mantentzeko soka bat paratu dugu eta bezeroak bana-ka sartzen dira farmaziara. Horrez gain, desinfektatzeko lan handia hartzen dugu. Medikamentuak berdin saltzen ditugu baina lan egiteko ma-nera horrek mantsotu egiten du eta berandu akitzen dugu.

Koronabirusa izan dezakeenaren susmoa duzunean, zein duzue protokoloa?

Ez zait gaizki dagoen inor to-
katu, susmo tiki bat baino ez
dut izan. Baina halakoetan
osasun zentrora bideratzen
ditugu. Etxean egoteko eta
osasun zentrora deitzeko erra-
ten diegu, haiek erranen die-
telako zer egin.

Kutsatzeko arriskuan ikusten duzu zure burua?

Halako eromenean sartuta
gauden honetan, batzuetan
pixka bat kezkatzen nau baina
ez da nire kezka nagusia. Se-
guru ikusten dut neure burua,
segurtasun tar-tea mantentzen

dudalako, nahiz eta beti beldur
pixka bat izan.

Baliabide aldetik zerbaiten falta sumatu duzu?

Bai, eta horixe da buruko min
handiena eman didana. Me-
dikamentuen printzipio akti-
bo aunitz Indiatik eta Txinatik
ekartzen dira eta koronabiru-
saren kontua Txinan hasizenez,
hasieran gaiak kezka sortu
zidan. Baina ez dut medika-
mentu faltarik izan; alkohola,
maskara edo termometroen
eskasia, ordea, bai.

Nahikoa maskara izan dituzu?

Falta ez, baina eskasia bai.
Bat-batean hiru kutxa ekarri
izan dizkidate, eta ondoko
astean, berriz, bat bera ere ez.

Zaila da horrela antolatzea eta
nor bait gabe utziko dudala
pentsatu izan dut. Baina egia
erran ez dut arazorik izan, guti
baina eduki ditut.

Nolako maskara motak daude?

Aunitz daude baina korona-
birusaren inguruan hiru klase
aipatuko nituzke. Alde batetik,
maskara higienikoak daude,
telazkoak edo paperezkoak.
Hauek etxean egindakoak ere
izan daitezke eta telazkoak
berrerabilgarriak direnak, 60
gradutara edo tenperatura
altuagoetan garbitzen ahal
direnak. Zerbait babesten dute
baina ez aunitz. Bertzetik,
maskara kirurgikoak ditugu.
Horiek ondokoak ez kutsatze-

ko balio dute baina ez dute
balio norbera babesteko. Ego-
kia litzateke denok halakoak
izatea, elkar babesteko genu-
keelako. Jende aunitz dagoen
tokietan horiek erabiltzen dira
eta garraio publikoan derrigo-
rrezkoak dira. Segurtasun tar-
tea mantenduko bagenu ez
lirateke beharrezkoak izanen,
baina ezin denez, tresna ego-
kiak dira maskarak. Hiruga-
rrenik, FFP2 izeneko maskarak
ditugu. Halakoek norbera
babesteko eta ingurukoak ez
kutsatzeko balio dute. Dena
den, FFP2 maskaren artean
balbula dutenak eta gabekoak
bereizi behar dira. Balbula
dutenak erabiltzeko erosoagoak
izan daitezke, eta pinturarekin
ez kutsatzeko balio dezakete,
baina birusaren aurka ez. Bal-
bula izateak arnasa kanpora-
tzeko aukera ematen du eta
gisa honetara birusa ere kan-
poratzen da eta kutsatzeko
aukerak hor segitzen du. Hor-
taz, balbula dutenek norbera
babesteko balio dute baina
ingurukoak kutsa daitezke.
Horregatik egokiagoak dira
balbularik gabekoak. Bertzetik,
ez kirurgikoak ezta FFP2ak ere,
ez dira busti behar, ezta al-
koholarekin edo libixbarekin
ere. Bustiz gero babeserako
duten geruza desagiten zaie.

Koronabirusaren aurka zein mas- kara gomendatuko zenuke?

Hori baino gehiago aholkatu-
ko nuke distantzia mantentzea,
batzuetan jendea maskarekin
gehiegi fidatzen delako. Edo-
zein kasutan, arrisku handiko
jendeari FFP2 erabiltzea go-
mendatzen diet eta gazte jen-
dearentzat, erosketak egitera
joaterakoan adibidez, kirurgi-
koa erabiltzea nahikoa dela
uste dut, batez ere, langilee-
kiko eta bertzeekiko errespetuz.

Maskaren prezioak aunitzetan aipatu dira eta Espainiako Go- bernuak maskara kirurgikoen gihienezko prezioak ezarri ditu...

Aunitz garestitzen ari zirelako
hartu zuen neurria. Ikustekoa
da zenbat enpresen eskaintzak
ailegatzan zaizkigun. Kirurgi-
koek lau ordu edo irauten dute

MASKARA MOTA		NORBERA BABESTU	KUTSATZEA SAINHESTU	IRAUPENA
Higienikoak	Berrerabilgarriak	✗	?	Segurtasunagatik 4 ordu baino gehiago ez erabiltzea gomendatzen dute.
	Berrerabilgarriak ez direnak	✗	?	
Kirurgikoak		✗	✓	
Norbera Babesteko Ekipamenduak (NBE)	FFP1 Balbularik gabe	✓	✓	Segurtasunagatik 8 ordu baino gehiago ez erabiltzea gomendatzen dute.
	FFP2 Balbularekin	✓	✗	
	FFP2 Balbularik gabe	✓	✓	Segurtasunagatik 4 ordu baino gehiago ez erabiltzea gomendatzen dute.
	FFP3 Balbularekin	✓	✗	
	FFP3 Balbularik gabe	✓	✓	



2002tik Arizkongo farmazialaria da Koro Arruti Peña.

eta kotxean kentzeko eta jende aunitz dagoen tokian eskuak garbituta paratzeko aholkatuko nuke eta noski, hondatua edo bustia badago botatzeko. Erraza da erabili eta botatzeko direla erratea, baina ez daude aunitz eta dirua balio dute. Horregatik, esku garbiekin paratu eta kendu eta ongi gordez gero, gehixeago iraun dezakete. Baina kontuz ibili behar da, bertzela alferri da.

Zein preziotan daude maskarak?

Kirurgikoen gehieneko prezioa 0,96 eurotan ezarria du Espainiako Gobernuak eta FFP2 maskarak borts-sei eurotan daude. Azken horiek gehiago irauteko dira baina salbuespen egoeran gaudenez, zaila da iraupena zehaztea. Nola dagoen, non ibili garen, busti den edo ez, izerditu garen edo ez... Horren arabera, gehiago edo gutiago iraunen du. Berez, erabili eta botatzeko dira baina Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseiluak FFP2 maskarak 30 minutuz 70 gradutara labean edukiz erabil daitezkeela erran izan du, baita astebetetz erabili gabe utzi ondotik berrerabil daitezkeela. Ikusi beharko da, gauzak agudo aldatzen baitira.

Zein gomendio emanen zenuke maskarak paratu eta kentzeko?

Garbitasuna kontuan hartzeko. Eskuak ongi garbitu ondotik paratu behar da maskara eta kendu ondotik ere eskuak ongi garbitu behar dira. Kentzeraketan gomatik hartu behar da, bazterretik. Aitzineko alde eta barrenekoa ez dira ukitu behar eta behin kendutakoan poltsa batean ongi gorde behar dira, salbuespen kasuetan ez bada, etxean ez dugulako erabili beharrik izanen.

Zure farmazian zenbat igo da maskaren eskaera?

Izugarri. Lehen ez zen ia batera erabiltzen. Sulfatadora erabiltzeko edo pintatzeko paperezko bakarren batzuk saltzen ziren baina kirurgikoak ia ez ziren saltzen. Orain ehun aldiz gehiago saltzen dugu.

Karrikan maskarak erabiltzeak derrigorrezkoa izan beharko luke?

Batzuentzat beharbada ez da eroso izanen, baina birusa hemen dago eta zenbat eta gehiago mugitu batetik bertzera, birusa hedatzeko aukera handiagoa izanen da. Aunitz

hedatzen bada, jende aunitz dagoen tokietan edo segurtasun tarte modu seguruan bermatu ezin denean, neurri egokia izan daiteke maskarak erabiltzera behartzea.

Maskarek gain, zein produkturen eskaera igo da?

Eskularruena. Jendeak eskularruak nahi izaten ditu baina aunitz ibilita eskuak bezala zikintzen dira. Kontua eskularruak behin erabili eta botatzeko da, denda batera sartu eta botatzeko, norbaitekin egon eta botatzeko... Egun osoa eskularru berarekin pasatzen badugu, eskuak bezala zikintzen dira eta hidroalkoholarekin eskuak baino okerrago garbitzen direla erranen nuke. Gainera, eskularruak falta dira. Bertzetik, gel hidroalkoholikoaren eskaera ere nabarmen hazi da, maskarena baino gehiago. Alkohola dute eta horiekin eskuak garbitzea ohitura ona da. Edozein gauza ukitu ondotik, hagitz garrantzitsua da garbitzea.

«MASKARA, GELA ETA ESKULARRUEN ESKAERA IZUGARRI HAZI DA»

«MASKARA ESKU GARBIEKIN ERABILTZEN EZ BADA, ALFERRIK DA»

Gel hidroalkoholikoaren artean zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Bereziki 70%ko alkohola dutenak aipatuko nituzke. Koronabirusaren birusak koronabat du eta hori alkoholarekin eta xaboiarekin desegiten da. 96%ko alkoholarekin ere badi-rudi desegiten dela baina aspaldi egindako ikerketetan oinarrituta errandakoak dira. 96%koak balio dezake 70ekoa baina gehiago erabiltzen da.

Bertze botikak lehen bezala saltzen dituzu?

Bai, berdin-berdin. Hala ere, orain katarroaren kontrako ohiko botikak gutiago saltzen ditugu. Hasiera batean, haue-takoak ere aunitz saldu genituen, jendeak prebentzio neurri gisa erosi zituela erranen nuke, baina orain ez dira saltzen. Ez dakigu katarro gutiagoko dagoelako ote den, maskarekin gehiago ibiltzen gare-lako, etxean gaudelako, tarte-a mantentzen dugulako edo jendearekin harreman gutiagoko dagoelako ote den, baina hala gertatu da.

Herritarren artean kezka sumatzen duzu?

Adinekoen artean bai. Farmaziara etortzeari ere utzi diote. Gazteen artean ez dut kezka gehiegi sumatu. Hala ere, adineko aunitz dira gaixotasuna gainditu eta sendatu direnak eta hori ere azpimarratu nahi-nuke.

Zein aholku emanen zenuke?

Alde batetik, segurtasun tarte-a mantentzeko. Ez gaude ohi-tuta baina ez da deus ere kos-tatzen. Bertzetik, garbitasuna ezinbertzekoa da eta bereziki eskuak garbitzeko deia eginen nuke. Akitzeko eztula edo do-ministiku egitean ukondoa erabiltzeko erranen nuke.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Erne egoteko, birusa oraindik hemen dagoelako. Helburua osasun publikoa ez geldiaraz-tea da eta horretarako gakoa denok elkar zaintzea da, har-tara, bertze arrazoi batengatik ospitalera joatea tokatzen denean artatuak izateko au-keria izanen dugu.

«Naturarekiko errespetua lantzeko beharra ikusten dut inguruan»

AURKENE PERURENA AGIRRE ELIZONDOKO GAZTEA

Natura maite du eta naturak kezkatzen du Aurkene Perurena. Horri loturik egin ditu ikasketak eta bukaerako proiektu gisa «naturarekiko kontzientzia lantzeko» proiektu bat diseinatu du

N. BAZTERRIKA

Zaindu maite duzun hori dio erranak eta horixe da Aurkene Perurenak (Elizondo, 2000) sustatu nahi duena: «mendia eta natura maite dut eta horrek kezkatzen nau». Hurbilsentitzen du eta hurbil sentitu du beti, «mendi artean hezi naizelako». Ezagutzen duenak badaki kirolaria ere badela, eta biak uztartuz ibiltzen da maiz, «hasieran nire kabuz hasi nintzen eta gero txirringularen talde batean eman nuen izena». Bizikletan edo oinez, maldan goiti, mendi kaskoak izaten ditu jomuga baztandarrak. Dena den, «gaur egungo kirolari aunitz ez bezala, ez naiz kronometroari begira ibiltzen, sentsazioekin, aste-ko ordu eta kilometroak kontatu gabe» baizik. Helburua argia da: «natura sentitu eta arnastea» eta «emaitzarik one-na barne poztasun hori izatea da niretako».

Natura kanpoan eta barnean, natura aisialdian eta lanean. Halaxe eraiki nahi luke bere etorkizuna eta bide horretatik egin ditu ikasketak: «Lekarozen kirolarekin lotutako erdi mailako zikloa» egin zuen lehen-dabizi eta «Donostian gorputz eta kirol animazioa eta irakaskuntza» akitu berri du orain.

Naturarekiko errespetua langaiz Zikloari bukaera emateko aisialdiko natur ekintzak sustatzeko proiektu bat diseinatu du, «Baztango haur eta gazteei zuzendutakoa». Helburua «naturan



Aurkene Perurena, Lur txakurrarekin, mendiaz gozatzen

egindako ekintzen bidez gazteei krisi ekologikoaz kontzientziatu eta irtenbidea ematen saiatzea» da eta, horretarako, adinaren arabera, bi talde sortu ditu: «adin txikikoekin, baso heziketan oinarritutako hezkuntza ez formala eskaintzea da helburua; handiagoak direnekin, berriz, mendiko kirolak ezagutzea eta auzolan edo ikastaroak antolatzea». Gisa horretan, «elkarrekiko eta naturarekiko errespetu eta zaintza» landu nahi ditu.

Hezkuntza formalaren mugak urratzeko bideak dira proposatzen dituenak, bere ustez «horrek ez dituelako haurbakoitzaren erritmo eta beharrak errespetatzen». Sormena lantzeko bitarteko gisa ulertzen du natura eta alderdi horretan dagoen gabezia bete nahi luke: «gaur egongo haurrek, ez dute

txabolarik, arkurik... Haurrak «aspertzen naiz» behin erran eta mugikorra ematen diogu, bakea emateko. Haurra aspertzea beharrezkoa da, irudimena garatzeko!».

Gazteak ere kezka iturri dira berarentzat, «pasibotasun eta berekoitasun handia» ikusten duelako: «gehienak kuadrilletan biltzen gara eta bertze adinetako edo kuadrilletako jendearen lagun izatea kosta egiten zaigu». Zentzu horretan, «harremantzeko, hausnartzeko eta kirola egiteko espazioa» sortzea beharrezkoa delakoan dago eta bide horretan «ostatuez aparte, badira saretzeko mila bide, mila leku, mila jende».

Pantailetatik aske, naturaren erdian

Pantailen erabilerak «mugak gainditu» dituela sentitzen du

eta «Internetak eman digunak ez du merezi kendu diguna kontuan hartzen badugu...». Bereziki, sare sozialen «erabilerara masiboak» kezkatzen du: «lagunekin elkartu eta urrutiko dagoenarekin mugikorretik solastatzeak, mendira argazki batengatik joaten direnak... Ezin dugu ahaztu kaskora ailegatu eta gure begiekin ikusi beharra dugula paisaia argazkia atera aitzinetik. Denok egin dezakegu lanketa, luzera, eskertuko duguna!».

Hori guztia jorratzeko eta eskualdeak dituen «baliabide natural anitzak» ustiatzeko, Baztanen kokatu du proiektua, «ttikitatik bertako basoa, erreka... ezagutu eta maitatuz gero, etorkizunean emaitza positiboak ekarri ditzakeela» uste duelako.

Hizkuntza eta kultura zainduz

Proiektuak zehar lerro batzuk eta aparteko tresnak ere eskaintzen ditu, «tokiko hizkuntza eta kultura» lantzeko aukera ere eskaini nahi izan baitu: «taldeen izenak adibidez, euskal mitologiako izakien izenak dira». Tartean, bildu dituen jarduerak ere ezagutza horri bide emateko modua eskaintzen dute: «adibide gisa, baserri batera bisita egin eta lehenagoko lana eta tresnak ezagutzeko, aita-txi-amatxien kondairak aditze-ko, kontrabandisten istorioez gozatzeko, dantzatzeko... jarduerak bildu ditut».

Proiektua sortu eta erakutsi

Proposamena ezagutzera emateko webgune bat paratu du eskura: <https://herenaisialdianaturan.blogspot.com> eta, hemendik, interesa dutenei sartzeko gonbidapena luzatu nahi izan die.

Momentuz hitzak dira guztia, «errealitatea bezala irudikatze-ko eskatu digute eta behar baten harira sortu dut hau». Diseinutik hasten da dena, eta hori aitzinera ateratzea «zaila» izan daitekeen arren, ez du aukera baztertu: «etorkizunean gauzatu nahi nuke».

Udalak aurrez aurreko zerbitzua zabalik du

Maiatzaren 18z geroztik tramiteak egitera joan behar dutenentzat aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen du Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak maiatzaren 18tik, aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen die herritarrei Balleko Etxean. Hala, tramiteak egitera joan nahi dutenek aukera izanen dute. Joan nahi dutenek aitzinetik hitzordua hartu behar dute 948 58 00 06 telefonorat deituz.

Era berean, udaletxerat joaten diren herritarrek, beraien eta udaleko langileen segurtasuna bermatze aldera, ikusgarri izanen dituzten ohartarazpenei kasu egin beharko diete.



Hitzordua hartu beharko dute.

Azkenik, ahal izanez gero, tramiteak telefonoz edo telematikoki egiteko gomendioak indarrean segitzen duela oroitari dute.

Baztango Zaintza eta Elkartasun sarea martxan da berriz

TTIPI-TTAPA

Baztango Zaintza eta Elkartasun Sareak bi bilera mugatu egin ondotik, maiatzaren 25ean, joan den astelehenean, egitekoa zuen hurrengo batzarra.

Zaintzaz, oinarritzako eskubide sozialetan defentsaz eta an-

tikapitalismoaz solastatzeko hitzordua zen aurreikusia zutena eta orain arteko ibilbidea aurkeztearekin batera, batzordeen sortzeko, solastutakoa amankomunean jartzeko eta elkartzeko maiztasuna eta modua zehazteko asmoa zuten.

«Arizkun Rock antolatze gogotik lan egin dugu eta bertan behera uzteko erabakia hartzea ez da goxoa izan»

ALBARO SOULE GARCIA

ARIZKUNGO GAZTEA

«Konpromisoa hartu eta borroka eginez lor daitezkeen gauzetan sinesten duen 28 urteko gaztea» da Albaro Soule (Arizkun, 1992). Bi alderdi horiek uztartuz, 2014ko ekainaz geroztik, «herri bizi, zoriontsu eta eraikitzaile baten aldeko apustua egin» eta «etika, kultura eta musika» lortzen dituen Arizkun Rock besta jendetsua antolatze lanetan dabil. Irail-urri aldera hasi ziren jaialdiaren seigarren edizioa antolatze lanetan. Ordutik apiril hondarrera bitarte, buru-belarri aritu dira lanean: «sustengu ekonomikoa lortzeko eta herriari bizia emateko antzerkiak, proiektioak... antolatu ditugu». Lana eta gozamina eskutik ibili dira bide horretan, «gauza horiek antolatzen gozatu egiten dugu, jendearen erantzuna ikusita gehienbat».



Albaro Soule.

Aurten, ordea, ez dute aitzinera egiterik izanen, koronabirusa tarteko, bertan behera utzi behar izan dutelako: «dena uztea eta hainbertze lan egin ondotik ezin ospatzea ez da goxoa izan». Azken momentuan etorri da erabakia «bertze aukerarik ez» zutela ikusi dutenean: «dena lotua genuen, eragile guztiekin etengabeko komunikazioan egon gara hau dena ateratzeko... Kostu ekonomikorik ez baina pertsonala bai eragin digu bertan behera uzteak».

Zain egon diren guztiei eta babesa eman dietenei esker oneko hitzak bidali dizkie Soulek: «animoak eta indarrak transmititu dizkiguten horiei mila esker aunitz, beraiek baitira proiektu hau mantentzen dutenak». Ekaineko besta haundirik izanen ez bada ere, birusak ez ditu «herritik eta herriarentzat, herriaren alde» lan egiteko indarrak itzali. Hortaz, «aitzinerago ekitaldi gehiago antolatze ideiak» bizirik dira eta «guk lanean segituko dugu, beharbada, inoiz baino gehiago».

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18

31730 IRURITA

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK

HÖRMANN

banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK

Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkiaz
babestu
toldo batekin





Aurten ez da Elizondoko bestarik izanen. ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Ekaineko eta uztaileko besta guziak bertan beheiti

Almandozko, Arizkungo, Berroetako, Erratzuko, Azpilkuetako eta Elizondoko bestak ez ospatzea erabaki dute

TTIPI-TTAPA

Osasuna lehenetsi eta bestak bertan behera utzi dituzte Baztango hainbat herritan. Iruritarrek izan ziren lehen-dabizikoak, eta Aritz Urrutiak berak aitortu zuenez, «egoerak izandako bilakaerak bultzatuta» hartu zuten erabakia. Bestak ez ezik, eskola tikien eguna eta Mendi Duatloia ospatzerik ez zuten izan.

Ekainean eta uztailean behintzat bestarik ez

Iruritaen ondotik, ekainaren 10etik 14ra Almandozko ospatzekoak zituzten bestabe-

riak ere uztea erabaki zuten herritarrek. Modu berean, eta «bertze aukerarik ez» zutela ikusita, hartu zuten erabakia arizkunderrek. Hortaz, aurten ez da ez Arizkungo bestarik, ezta Arizkun Rock jaialdirik ere izanen.

Erratzuko sanpedroetako antolatzaileek ere «hondarreko momentura arte zer egin

**AMAIURTARREK
«HELDU DENA
IKUSITA»
ERABAKIKO DUTE**

ahalko dugun» ezin jakinik zeudenez, aukera onena hori izanen zela adostu zuten.

Erabaki horien ondotik etorri ziren uztaileko bestei dagozkien batzuk: Azpikueta sanferminak ez egitea lehen-dabizi; eta Elizondoko bestarik ez ospatzea gero. Azken horiek 2021era arte agurtu zuten herria eta antolatzaileei egindako lanagatik eskerrak eman zizkieten: «heldu den urtean bueltatuko gara, indar handiagoz. Esker mila besta komisiari orain arte egindako lanagatik».

Abuztukoak mahai gainean

Abuztuan ere bestak izaten dituzte zenbait herritan. Zigan eta Amaiurren ez dutela erabakirik hartu adierazi dute. Kontua mahai gainean duten arren, «zain gaude». Ez aitzinera, ez gibelera ez dute egin: «ez da deus bertan beheiti utzi baina ez gara aitzinera egiten ari. Heldu dena ikusita erabakiak hartuko dira».

320.482 euro Oronozko osasun kontsulta handitu eta eraberritzeko

TTIPI-TTAPA

Osasunbideak guztira 949.492,06 euroko laguntzak eman dizkie tokiko bertze hainbertze kontsultategiren jabe diren sei udal eta kontzejuri. NAO argitaratutako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari gerentearen ebazpen bidez baimendutako diru-laguntzak 2020. urtean tokiko kontsultategien eta laguntzaileen eraikuntza- eta eraberritze-obra finantzatzeko dira. Dirulaguntzarik handiena Baztango udalak jasoko du, 320.482,08 euro Oronoz-Mugairiko osasun kontsulta handitu eta eraberritzeko. Laguntzak pasa den urtarrilean argitaratutako diru-laguntzen deialdian zehaztutako balorazio irizpideak jarraituz banatu dira, eta eskaeretan azaldutako beharrak eta aurrekontuak kontuan hartuz.



Ornozko kontsulta handituko dute.

**MARMOLES
SOULE**
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUTURAS DE PIEDRA

**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Patxi Irigoien erratzuarra.

«Pena izan da Erratzuko bestak bertan behera uztea, azken urteetan indar handia hartzen ari zirelako»

PATXI IRIGOIEN

ERRATZUKO GAZTEA

Hondarreko bi urteetan herriko bestak antolatzeko lanean aritu da Patxi Irigoien (Erratzu, 1994). Aurtengoarekin akitzen du bere lana, eta hurrengo bati pasako dio bere lekukoa: «denoi egokitzen zaigu noiz-bait ardura hartzea, bi urtetarako. Nik aurten dut azkena». Ez du nahi bezala itxiko ibilbidea, aurten ez baitute bestarik izanen; baina keinu ttipiren bat egiteko modua bilatzen saiatuko dira: «menturaz udazkenean ospatuko dira».

Zenbat lagun arduratzen zarete bestak antolatzeaz eta nola banatzen dituzue ardurak?

Lau lagun arduratzen izaten da. Bi urtero, bi lagun sartzen dira damunausi (danbolin nagusi)

izatera, taldean bi urte bete dituztenen bi kideen hutsuneak betetzeko. Egia erran, arras batzarzaleak gara eta bilera aunitz egiten ditugu. Whatsapp taldean ere dena kontsultatzen dugu...

Noiz hasten zarete antolatzen?
Inaute aitzineko azken bileran, hau da, otsail aldera, biltzen ditugu lehenbiziko proposamenak.

Zein izaten dira zure egitekoak?
Herriko bestetako ekitaldi nagusiak antolatu eta hauek a-

tzinera ateratzea da gure egitekoa. Musikariak kontratatu, pilota jaialdia antolatu, ostatua prestatu, diru kontuak eraman etab. Erran daiteke, orokorrean, aurpegia ematen dugunak gu garena, baina denen laguntza izaten dugu.

Noiz erabaki zenuten bestak bertan behera uztea?

Konfinamenduan ginela, bilera telematikoko bat egin genuen damunausien artean eta erabaki genuen hoberena, bestak, bertan behera uztea zela, izan ere, nahiz eta ekainean jada «normaltasun berria» izanen dugun, ez dugu jakinen hondar momentu arte zer egin ahalko dugun eta zer ez.

Ekitaldi guztiak lotuak zenituzten?

Denak ez, baina gehienak bai: egun guztietako musikari guztiak finkatuta geneuzkan, pilota jaialdia ere antolatuta zegoen, baita zikiro erretzaileak ere...

Nola jakinarazi zenuten bestarik ez dela izanen?

Whatsapp talde handi bat bada erratzuarren artean. Herriko jende aunitz dago taldean eta hor argitaratzen ditugu herriko aferak. Ohar bat idatzi eta bertara igorri genuen. Iruztan bat edo bertzte izan ziren, denak penatuta.

Bestarik gabe gelditzetik, zerk eragin dizu pena haundiena?

Pena haundia hartu dut, izan ere, azken urteetan, Erratzuko bestak indarra hartzen ari ziren herritarren artean. Azken urteetan lehenbiziko eguneko Baztan Zopen afariak hartu du indarra. Duela bi urte antolatu zen lehen aldiz, plazako karpan eta jendearen erantzuna bikaina izan da. Antolatzen lan haundia du baina animaleko giroa egon da eta aurten ere jendeak gogotsu espero zuen.

Ez bestarik, ez Baztandarren Biltzarrarik. Urte berezia izanen da aurtengoa...

Egutegian seinaturik dauden egunak markatu gabe bizitzen ikasi beharko dugu, osasuna lehenetsiz. Oraindik aunitz iraunen du Covid-19aren afe-
rak, beraz, pazientzia izaten eta egunez egun bizitzen ikasi beharko dugu.

Alde ona ere izanen du. Bestarik ez, ajerik ere ez...

Nik ez dut horrela ikusten. Ajea baldin baduzu, seinale ongi pasatu duzula!

Ostalariek ere sumatuko dute eragina...

Dudarik gabe. Gainera, Erratzu da Baztanen biztanleko ostatu gehien dituen herria. Ostatueta bizitza haundia dago herrian eta aspaldian nabaria da hutsune hori.

Aitzinerago zerbait antolatzeko asmoa duzue?

Menturaz, udazken aldera ere zerbait antolatu daitekeela pentsatu dugu.

**BAZTAN ZOPEN
AFARIA GOGOTSU
ESPERO ZUEN
JENDEAK**

**UDAZKEN ALDERA
ZERBAIT EGIN
DAITEKEELA
PENTSATU DUGU**

**BRIKO
LIMPIEZA, SL**

**MOTA GUZTETAKO
GARBIKETAK:**
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfiantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

**www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com**

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Lapurdikoko mugako segurtasuna gogortu dute

Herriko Etxeak mugak edekitzearen beharra jakinarazi zien Espainiako eta Frantziako estatuei

ARANTXA ETA IRAIA

Nafarroa deskofinamenduaren lehenbiziko fasean sartu denez, inguruko jendeak karrikak gehixeago zapaltzeko aukera izan du.

Maiatzaren 12an, fase honen hasieran, Dantxarinean usaian baina jende gehiago egon zen, batez ere Iparraldean bizi den jendea. Hau ikusirik, Espainiako eta Frantziako estatuek mugetan ezarri zuten segurtasuna gogortzea erabaki zuten. Halere, argi printzak ere ikusten ari dira. European mugei buruz mintzatzeko eta



Mugak itxirik segitzen du. ONDIKOL

erabaki bat hartzeko uda hasiera jarri dute data hurbilena. Herriko Etxeak bere kezka eta mugak edekitzearen beharra jakinarazi zien bi estatuei eta hau izan da erantzuna.



Irailean bueltatuko dira jubilotekara. ARTXIBOKOA

Harremana elkartearen jubiloteka irailera arte hetsia

ARANTXA ETA IRAIA

Covid-19aren ondorioz, jubilatuko eta pentsionisten Harremana elkarteak kudeatutako jubiloteka irailera arte hetsia izanen dela komunikatu dute arduradunek. Hala ere, ez daude geldirik, datorren kurtsorako jarduerak soziokulturalak antolatzen ari baitira. Horien

artean daude baratze komunalen tailerra, irakurketa tailerra, xaharrei zuzendutako hitzaldiak eta film emankizunak. Ikasturtearekin batera aukera zabala izanen dute gure aitatxi-amatxiek! Harremana elkarteak txalo eta besarkadak bidaltzen dizkie etxean egon behar duten aitatxi-amatxiei!



ARANTXA ETA IRAIA

Birziklatzeko zakarrontziak zaborrez lepo

Azken aldian Zugarramurdi eta Urdazubiko birziklatzeko zakarrontziak usaian baino beteago daude. Zakar hauek kudeatzen dituen enpresa iparraldekoa da eta aduanan izandako arazo batzuen ondorioz ezin izan dira pasatu. Arazoa konpondu artean, herritarrek zakarrak kanpoan ez uztea eskatu du Herriko Etxeak.

Hemendik aitzinera mezatara joateko aukera izanen da

ARANTXA ETA IRAIA

Maiatzaren 16an ireki zituen berriro ere ateak Urdazubiko elizak. Horretarako, aitzinetik dena desinfektatu zuten eta elizako aukiak markatu ziren distantzia mantentzeko. Halere, elizkizun bakoitza bukatu bezain pronto eliza desin-

fektatuko dute. Horretarako eliza garbiketaz arduratzen diren herritarrei laguntza eskatu zaie. Mezak, Urdazubi eta Zugarramurdi herrietan txandakatuz egingen dira. Elizara joanen den orok eskularruak eta maskara janzteko eskatu dute.

Herri Urrats irailaren 20an egiteko asmoa azaldu du Ikastolen Elkarteak

TTIPI-TTAPA | SENPERE

Herri Urrats jaialdiaren 37. edizioa maiatzaren 10ean zen burutzekoa Senpereko aintzira inguruan, baina koronabirusaren ondorioz, antolatzaileek bertan behera utzi behar izan zuten jaialdia. Apirilean jakinarazi zuen Ikastolen Elkarteak lehendakari Koldo Tellituk Herri Urrats, Araba Euskaraz eta Ibilaldia, denak bertan behera geratu zirela eta Tuteran egitekoa zen Nafarroa Oinez 2021 era gibelatu dutela. Orain jakinarazi duteenez, Herri Urratsen badu bi



Lehen aldiz irailean egingen dute.

garren data: irailaren 20a. Osasun egoerak ahalbidetzen badu, egun horretan egingen da jaialdia *Gaki ge!* lelopean. Ea oraingoan bai, joateko aukerarik badugun!



Erosle pila bildu zen Berruet Bentako atean.

Konfinamendua aritzearekin batera aldaketak

Marixan ostatuak ateak edeki ditu eta meza zuzenean eskaintzen hasi dira

MARIFA ETA KORO

Konfinamentua arintzeakin batera, zugarramurdiarrek aldaketak sumatu dituzte herrian.

Erosle pila

Alde batetik, Gainerko Bentako mugan jarriak ziren militarrek partitu ziren maiatzaren 11n, larunbatean, eta beraiek zeuden toki berberean Iparraldetik etorritako erosle pila bat muntatu zen Berruet Bentako atean. Irringarria zen ikustea, jendeak egina zuen lerro luzea mugaren marraren parean, kokoen kontrolaren

ondoan, eta beraien patrola eta guzti erdian hartuz.

Marixan ostatuak edekita

Neurri berri hauei esker, maiatzaren 16ko larunbatean bertze bi nobedade izan genituen: batetik Marixan ostatuak edeki zela; eta bertzetik, meza zuzenean eskaini zela.

Meza Urdazubini eta Zugarramurdi txandaka

Meza ez zen herriko elizan izan, baizik eta Urdazubikoan, hemendik aintzinera hala izan baita, bi herrien artean txandakatu.



Kilima taldeko kantaria da Ione Zozaia herritarra.

Gaztea maketa lehiaketaren entzuleen saria irabazi du Kilima taldeak

MARIFA ETA KORO

Herriko Ione Zozaia kantari duen Kilima taldeak EITBko Gaztea maketa lehiaketaren entzuleen saria irabazi zuen apiril bukaeran 2.857 boto lortuta. Horri esker, taldeak 2.500 euro eta BBK Live jaialdian (eguna eta data zehazteke daude) parte hartzeko aukera lortu ditu. Epaimahaiak aukeratutako Deñe, Raitx eta Klermoonekin batera ariko dira eta epaimahaiak aukeratutako taldeak 5.000 euro jasoko ditu.


Kilima taldeak franko musika berezia eskaintzen du, be-

raiek *euskal rumba* deitzen diotena. Batez ere Gipuzkoa aldean dira ezagunak, baina gure eskualdean ere, Sarako eta Berako bestetan, aritu dira. Orain Herri Urratsen ezagutzera eman beharrak ziren, baina ez da posible izan.

Beraien kantu ezagunena 'Kontakatu' da, eta horrekin eta bertze lau kantuekin, maketa bat grabatu beharra zuten apirilean, baina hori ere ezin egin gelditu zaie. Nolanahi ere, Youtouben badaukate bideoklip bat eta Instagram eta facebooken ere kantuen zatitxo batzuk ikus daitezke.

Bertze behin kalteak eragin dituzte eskolan

Narkoneko aldeko hesia edeki eta bi leiho hautsiz, eskoletako patio estalian sartu eta zenbait kalte sortu dituzte. Ez da lehenbiziko aldia izan, lehen ere gertatu baita, baina oraingoan argi gelditu da ez dela kanpoko nehor izan. Udalak ez du dirua soberan, eta halakoetan gastatu beharrak kolera ematen du.



Kalteak eragin dituzte eskolan.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

Ikastetxe bakoitzak bere manierara antolatu du itzulera

Ikastolan eta eskola publikoan lehen mailakoekin hasi ziren eta San Josepen, hasieratik ama eskolakoak hartu dituzte

TTIPI-TTAPA

Konfinamendua giblean utzita, maiatzaren 12an itzuli ziren hiru ikastetxeetako haurrak beren ikasgeletara. Eskola publikoan eta ikastolan lehen mailako ikasleendako ireki zituzten ateak eta San Josepe eskolan, berriz, hasieratik ama eskolakoek ere ateak zabalik izan dituzte.

Olhain ikastola

Olhain ikastolan progresiboki ari dira itzulera egiten. Maiatzaren 12ko astean lehen mailako azken bi urteetakoak hasi ziren, eta joan den astean bertze talde bat hasi zen. Aste honetan, berriz, lehen maila osoko ikasleak hartzeko irekiko dituzte ikastolako ateak.

Segurtasun neurriak hartuta ari dira lanean. Bertzeak bertze, ikasleak ez elkartzeko kanpoko eremua banatu behar izan dute, ordutegia ere berrantolatu dute eta ikasleak bi taldetan banatu dituzte. Hala, batzuk astelehen eta asteartetan eta bertzeak ortzegun eta ortziraletan joaten dira ikastolara. Hala ere, lehentasunezko ofizioa –osasun arloko profesionalak, zahar etxeko langileak, irakasleak...– duten seme-alabei egunero ikastolara joateko aukera dute. Oraingoan, zaharrenekin egin dute itzulera eta ikastolatik «nahiko ongi» moldatu direla adierazi dute. Ttipienerkin zer egin, ordea, erabaki gabe dute. Ekain hastapenean erabakiko dute ama ikastolako haurrak itzuliko diren ala ez. Edozein kasutan, ikastolatik adierazi dutenez, «protokoloak indarrean segitzen

badu ttipiak itzultzea zaila izanen da».

Eskola publikoa

Eskola publikoan, berriz, usaian eskolara joaten diren 45 ikasleen artean 19 ziren joan den astean eskolan hasitakoak. Lehenbiziko astean lehen mailakoak hasi ziren eta joan den astean ama eskolakoak bildu ziren taldera.

San Josepe eskola

Konfinamendua finitu aitzinetik, burasoen artean egin dako galdeketa ondotik, San Josepe eskolan ikasturte honetan dituzten ehun ikasleetatik 46k erabaki zuten gelara itzultzea, tartean, ama eskolako ikasleak, eta halaxe segituko dute ekainaren 2ra arte.

Bueltatzeko interesa agertu zuten ikasleak lau taldetan banatuak dituzte: ama eskolakoak alde batetik, 6-7 urtekoak bertzetik, 8-9 urtekoak bertze talde batean eta 10-11 urtekoak laugarren talde batean. Gainera, ikasle guztiak egunero eta egun osoan hartzeko antolatu dira eta San Josepe eskolatik adierazi dutenez, «hastapenean beldurra eta kezka izan arren, ongi moldatu gara eta antolatzeak manera hau denon gustukoa izan da, irakasle eta burasoen gustukoa».

Hastapenean burasoei egin dako galdeketa adierazi bezala, hiru astez horrela segituko dute, hau da, ekainaren 2ra arte. Orduan erabakiko dute hortik aitzinera zer egin eta ikasturtea finitu bitartean nola antolatu.



Beharbada buruilean ikasturtea eraikin berrian hasiko dute San Josepekoek.

San Josepe eskola berriko lanak aitzineratuak

GANEX

Konfinamendu garaian lanean aritu dira San Josepe eskolako eraikin berrian eta idorra ematen hasi dira. Denbora txarra rekin, berriz, barneko lanetan aritzeko aukera izan dute..

Oraino lan ainitz egin behar rak badituzte ere, beharbada buruilean eskolara sartzea

eraikin horretan egingen dute San Josepe eskolako ikasle eta erakasleek. Bertzetik, lehengo eskolan bizilekuak egiten ari dira eta lan horiek ere nahiko aitzineratuak dituzte.

Ikusten den bezala, denak ez dira konfinatuak egun, eta beharrik, ekonomiak behar baitu aitzinera segitu.



GANEX

Beteranoen eguna ohoratu dute

Maiatzaren 8an beteranoen egunaren kariatara, Battite Laborde auzapezak loreak eman zituen beteranoen eta Bittor Iturriaren harrietan. Argazkian, auzapezarekin batera, Piores Lasaga eta Ganixon Errandonea ageri dira, Frantziako eta Algeriako beteranoen banderekin, eta Senpereko musikariak.

Belateko bi tunelak bikoizteko proiektua lizitaziora atera dute

1,5 milioi euroko aurrekontua du eta interesa duten enpresek ekainaren 17ra arte aurkez ditzakete eskaintzak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-121-Aerrepidean, Iruñea-Behobia tartean dauden Belateko eta Almandozeko tunelak bikoizteko proiektua idazteko lizitazio-iragarkia argitaratu du, eta 1.500.000 euroko aurrekontua du, BEZa barne. Estatuko Gobernuak kontratazio-prozedura administratiboak izapidetzeko epeak eten ondoren argitaratu da, betiere epe horiek bitarteko elektronikoen bidez gauzatzen badira. Interesa

duten enpresek ekainaren 17ra arte aurkez ditzakete eskaintzak.

Lanak esleitu ondoren proiektua idazten hasiko da. Lanak egiteko epea hamasei hilabetekoa da, eta kontratua sinatu eta biharamunean hasiko dira.

Eraikuntza proiektuan Belate eta Almandozko tunelak bikoizteko beharrezkoak diren obrak zehaztuko dira, hodi berriak lehendik dauden tuneletatik ahalik eta hurbilen eraiki daitezkeen. Halaber, tuneletatik ahalik eta hurbilen eraiki daitezkeen. Halaber, tuneletatik ahalik eta hurbilen eraiki daitezkeen.

errepide-zatia bikoiztea (2 kilometro luze), eta egungo galtzada eta errepide berria lotzeko egin behar diren trazadura-zatiak definitzea (bikoiztuta, zatiaren hasieran eta bukaeran).

2022tik aitzinera

Tunel horiek bikoizteak abantaila nabarmenak dakartza azpiegiturak Europako araudira egokitzeko bertzetik aukera batzuen aldean: behin betiko irtenbidea da, bihodi dituen, zirkulazio-noranzkoak independenteak dira eta tunel bakoitzean zirkulatzen duten ibilgailuen kopurua murrizten da, eta luzetarako aireztapena nahikoa da.

2022tik aitzinera hasiko dira lanak, eta 2024aren amaierarako edo 2025aren hasierarako, 500 metro baino gehiagoko Nafarroako tunel guztiak Europako zuzentarauaren segurtasun-baldintzetara gutiz egokituta egon daitezke.

Ardi edo ahuntz buru bakoitzeko hiru euroko dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko Departamentuak ardi edo ahuntz bakoitzeko 3 euroko laguntza bereziak jarri ditu abian, 1,3 milioi euro guztira, eta minimis erregimenari atxikita. Ardi-eta ahuntz-azien-aren sektoreari laguntzeko aparteko neurri bat da, bereziki Covid-19ren osasun-krisiak eragindakoa.

Laguntza honen tramitazioa eta kudeaketa ahalik eta gehien sinplifika dadin abeltzaintzat, ez da tramite gehigarriarik egin behar ardiaren eta ahuntzen urteko laguntzak eskatzeko, kanpainako PAC eskaerak hartzeko ezarritako sistema berean.



PLAIAUNDI
INSTITUTUA



• HASIERAKO FORMAKUNTZA • ETENGABEKO FORMAKUNTZA • FORMAKUNTZA DUALA

LANBIDE HEZIKETA

Erdi Mailako HZ

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak
- Administrazio Kudeaketa

Goi Mailako HZ

- Gizarteratzea
- Haur Hezkuntza
- Administrazio eta Finantzak
- Dietetika
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa
- Garraioa eta Logistika
- Nazioarteko Merkataritza
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

*** Aurrematrikula: ekainaren 1etik 19ra | * Matrikula: uztailaren 13tik 17ra**

* (Web orrian sartu eta online egitea gomendatzen dizugu, bestela hitzordua eskatu beheko telefonoan edo e-postaz)

Ordutegia: 09:00-14:00 | 16:00-18:00

Tel. 943 899 214 | info@plaiaundi.eus | www.plaiaundi.hezkuntza.net | Plaiaundi z/g IRUN (Gipuzkoa)



Beti Gazteko emakumeak igoera faserako sailkatzea ospatzen. Orain, bertze modu batera ospatu beharko dute igoera. UTZITAKOA

Ohorezko mailara igo da Beti Gazteko emakumeen taldea

Baztan eta Gure Txokoako gizonetzkoen futbol talde nagusiek kategoriari eutsiko diote, denboraldia bukatutzat eman baita

TTIPI-TTAPA

Lesakako Beti Gazteko emakumeen futbol taldea mailaz igo eta Gipuzkoako Ohorezko mailan ariko da 2020-2021 denboraldian. Gorengo mailako beraien multzoan lehenbizikoak izan ondotik, igoera fasean ere lehenbizikoak ziren lesakarrak martxoan, denboraldia eten zenean. Gipuzkoako Federazioak mailaz igotzeko eskubidea zutela jakinarazi zien eta neskek aukera hori baliatzea erabaki zuten maiatzaren 11n egin zuten bilera telematikoa ondotik.

Izan ere, «neskak gogoekin eta ilusioarekin» daudela aipatu digu Joxe Luis Altzugarai entrenatzaileak eta klubak ere begi onez ikusten du igoera. Altzugarai berak segituko du entrenatzaile lanean eta erronka gogorra datorkiela uste du, «heldu den denboraldiari begira, bizpahiru jokalarik Iruñe-

ko talde batekin fitxatuko dute, selektibitatea prestatu beharko dute bertze zenbaitek uda honetan eta igual kanpora joanen dira ikastera, kategoria ere gogorragoa da, talde indartsuagoak, bidaia luzeagoekin... Ikusiko dugu!». Hori bai, aurtengoa «denboraldi polita» izan dela aipatu digu entrenatzaileak, «lehenbiziko fasean lehenbizikoak izan ondotik, igoera fasean ere lehen postuan ginen... pena da nahi baino lehen bukatu zela denboraldia, sasoi onean geundelako eta gogotsu! Baina igoera lortu dugu eta ospatzeko modukoa da».

Baztan eta Gure Txokoako gizonetzkoen mailari eutsi

Denboraldia bertan behera utzi behar izatea eta jautsierarik ez izatea albiste ona izan da eskualdeko bertze zenbait futbol talderentzat. Nafarroako hirugarren mailan eta Gi-

puzkoako Preferente mailan denboraldia eten zenean jautsiera postuetan zeuden Baztan eta Gure Txokoako futbol talde nagusiek maila mantenduko dute, baita larri zebiltzan Beti Gazteko eta Baztango jubenilek ere. Doneztebe futbol talde nagusiak bazuen Preferentetik igoera faserako sailkatzeko itxaropena, «bederatzi partida falta genituen eta, egutegia ikusiz, teoriarik aukera dextente genituen, baina hala beharko du!», diote.

Baztan Futbol Talde nagusiaren kasuan, laugarren urtez segidan jokatu du Nafarroako Hirugarren mailan, inoiz lortu ez zuen marka. Xabi Maia entrenatzaileak aipatu digunez, «ez da maila mantentzeko modurik politena, baina tira, errekorra gaindituko dugu. Eta ekonomikoki klubarendako duen garrantzia ez dugu atzendu behar, 46.000 euro ez baitira ahuntzaren gauerdiko eztula».

Bertze talde-kiroletan aldaketarik ez

Nafarroako nahiz Gipuzkoako ligetan ari diren eskualdeko bertze futbol, areto-futbol, eskubalo, errugbi edo saskibalo taldeek ere bukatutzat eman dute aurtengo denboraldia eta ez dute aldaketarik izanen datorrenari begira.

XXX. Josetxo Ezkurra Memoriala ez da aurtengoa jokatu

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 15ean hastekoa zen Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako XXX. Josetxo Ezkurra Memoriala, baina COVID-19 birusak eragindako osasun-krisiaren ondorioz behin-betikoz gelditu behar izan zuten. Gaur egungo egoera eta etorkizuneko aurreikuspenak ikusiz, aurtengoa txapelketa behin-betiko bertan behera uztea erabaki du Erreka elkarteak.

Patxi Ordoki, Errekako pilotarordekariak eskerrak eman nahi izan dizkie urtero txapelketa jokatzeko posible egiten duten pilotari, epaile, babesle eta pilotazaleei eta heldu den urtean ere, ilusioarekin, beraien zain izanen direla aipatu du.

Baztan Futbol Taldean heldu den denboraldian hasteko aukera

TTIPI-TTAPA

Baztan Kirol Elkarteak www.cdbaztan.com webgunean formulario bat prestatu du 2020/21 denboraldian futboleko jokatu nahi duten haur eta gazte berriek zuzenean izena emateko. Bertze aldetik, coordinaciondeportiva@cdbaztan.com helbide elektronikora ere mezu bat bidali daiteke, izen-abizenak, posta elektronikoa, telefono zenbakia, helbidea, herria eta jaiotze data zehaztuz. Koronabirusaren eraginez behar baino lehenago akitu behar izan den denboraldi honetan 228 jokalariz zuten Baztan Futbol Taldeak, hamaika taldetan banatuak.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

IGANTZIKO BENTAK. Irailetik ekainera pisu argitsua errentan emateko, irakasleentzat aproposa. 3 logela, bainugela, sukalde-egongela, 2 terraza, baratzea egiteko lur sailarekin. 450 euro hilean, gastuak barne. ☎617 34 75 28.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Lana dela eta Elizondon pisu bat errentan hartu nahi dute. ☎686 82 55 87.

BAZTAN-BIDASOA edo Ultzama aldean pisua edo etxea errentan hartu nahi dute, hilean 600 euro arte ordaintzeko prest. ☎698 51 15 25.

ANIMALIAK

SALGAI



Bi asteme salgai: amak 6 urte eta alabak 3 urte. 750 eurotan. Mantsoak eta eskura jarriak, haurrekin eta helduekin paseoak emateko. Oso ongi zainduak. ☎645 72 97 87 (Nerea).


BERA. 3 ahari mutur gorri salgai, 1, 3, eta 6 urtekoak. ☎697 44 05 90.



Bi hilabete bete dituzten txakur **ku-meak** salgai. 50 eurotan bakoitza. ☎648 87 60 44 / 628 68 28 73.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Ohe artikulatua salgai bere barandekin, eta **gruarekin**. Oso egoera onean. 350 euro. ☎600 02 33 31.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61




info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik



Ohe artikulatua salgai bere barandekin. Aukera paregabea. 200 euro. ☎600 02 33 31.

350 gaztain pikete salgai, 1,80 metroko luzerakoak, bakoitza 2 eurotan. ☎699 02 73 78.



LANA

ESKARIAK

LEITZA. Esperientzia duen emakumea lan bila, haur edo helduak zaindu edo garbiketa lanetan aritzeko. ☎632 56 00 52.

Udan **haurrak zaintzeko** lan bila. ☎677 09 95 99.

Adinekoak zaintzen bortz urteko esperientzia duen emakumezkoa lan bila, interna ere ariko litzateke. ☎643 49 94 03.



744 484 361

ttipi-ttapa

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,02
- 1.koa 4,90
- 2.koa 3,75

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,13
- 1.koa 3,99
- 2.koa 3,85

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 170,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,85/6,45
- 8-10 kilokoak: 4,60/5,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 68 €

Zerri gizona 1,263 €

Zerramak 0,470€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (maiatzaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

SANTESTEBAN TAILERRAK

CLIO ZEN TCE 100 CV
14.100 € - 0 km - Sus. finan. lotu.

RENAULT MEGANE IV dci 110 CV - 2016 urte
Nab. - Klim. - 6marxa - 13.950 € - 41.500 km
www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

2. eskuko bizikletak

1.000€

1.800€

2.500€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Sampi Aragón

Asteburu eta oporretarako alokatzen ditugu

DONEZTEBE | 948 450 354

OROIGARRIA

**Euxebio
IGOA MITXELENA**

Lesakan, 2020ko maiatzaren 1ean

Baserri, mendi eta zakurrak
buelbaka egun ta gaba
milaka kantu ta istorio
eginaz hainbat algara
zurekin bizi izanagatik
zortedunak izan gara
egun guztiak argitzen ditun
izarra izanen zara.

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

**Asier
JORAJURIA BAZTERRIKA**2019ko maiatzaren 29an hil zen, 37 urte zituela
I. urteurrena

Maiatzaren amaiera
udaberriko asuna
ustegabeko dei batez
abisatu zitzaiguna
ezin sinistu ezinik
zer zen egin behar genua
mila galdera genitun
gaur ez dugu erantzuna

uda ere igaro zen
belarren bolen jarduna
udazkeneko feria
gustuko izaten zenuna
eta ondortikan negua
zerri hiltzean eguna
amaigabea da zure
oroitzapenen bilduma.

AMATXI, IZEBA-OSABAK ETA LEHENGUSUAK

OROIGARRIA

**Juan
SEIN SANSIÑENA**Igantzín, 2020ko maiatzaren 1ean,
81 urte zituela

Nahiz eta zure desioa izan,
kukua aditu gabe joan zara atta.
Gure bihotzetan beti egonen zara
eta kukua aditzen dugun bakoitzean
zure bizitzeko ilusioa eta indarra
izanen ditugu gogoan.

FAMILIA



OROIGARRIA

**Alejandro
OLASAGASTI PORTU**Lesakan hil zen, 2020ko apirilaren 3an,
88 urte zituela

Argi bat itzali da hemen lurrean
berri bat biztu da han zeru ederrean
gure oroimenean izanen zara betiko
ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.

ZURE FAMILIA



HERIOTZAK

- **Luis Etxepare Agesta**, Lesaka-Kanada, maiatzaren 8an, 81 urte zituela.
- **Francisca Danboriena Etxeberria**, Etxalarkoa, maiatzaren 9an, 96 urte zituela.
- **Isabel Iturria Martikorena**, Etxalarkoa, maiatzaren 10ean, 88 urte zituela.
- **Marcos Telletxea Arozena**, Igantzikoa, maiatzaren 12an, 84 urte zituela.
- **Manuel Goñi Mongaburu**, Iruritakoa, maiatzaren 14an.
- **Miguel M^a Saldias Grajirena**, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 18an, 54 urte zituela.
- **Jesus Mari Eugi Eugi**, Elizondokoa, maiatzaren 19an, 68 urte zituela.
- **Maria Gamio Bikondoa**, Iruritakoa, maiatzaren 19an, 102 urte zituela

**BAZTAN
BIDASOA**

Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.comBaita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere**24 ORDU
365 EGUN****948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com*Betiko taldea zu laguntzeko***IRACHE**
tanatorioak**Nafarroako familien zerbitzura 1976tik**

BERA (Kanttonberri, 14) | **DONEZTEBE** (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | **LESAKA** (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

**948 63 74 04 / 948 19 70 70****IZARRA**
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADOAseguru guztiekin lan
egiten dugu**Zuk erabaki**Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta MalerrekanT. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

KONTATU KONTUAK



Eguraldi onarekin makineria eta erremintak martxan. Garaian garaikoa, eta tenore honetan, batzuk lehenxeago eta bertzeak beranduxeago, eguraldi ona sumatu orduko makineriak eta erremintak martxan jarri dituzte baserritarrek, belarrak moztu eta idortutakoan biltzeko. Arantzan hartutako irudi eder horren gisakoak ikusi ditugu egunotan han eta hemen.



Kubarako bidaiaren zozketa iragartzeko bideoa egin dute BRTko jokalariek. Gaupasa bertan behera uzteak kalte ekonomiko handiak eragin dizkio Baztan errugbi taldeari. Egoera horri buelta eman nahian, zozketa ederra antolatu dute: Kubara bi lagunendako bidaia eta Biok bat tailerreko tresnak. Horren harira, bideo umoretsua egin dute. [ERRAN.EUSEN](http://erran.eus) ikusgai duzue!

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri [TTIPI-TTAPAN](http://ttipi-ttapan.eus) ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidalgizuz argazkia!


Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61ra, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik edota zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttapanen egoitza

Etor zaitez [TTIPI-TTAPAN](http://ttipi-ttapan.eus)en bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

URTEBETETZEAK




Zorionak Narbarteko **June Martin Argaini** bere 6. urtebetetzean. Muxu haundi bat familia guziaren baina bereziki bere ahizpa Iraiaren partetikw.



Marenek ekainaren 7an 4 urte beteko ditu. Zorionak familia guziaren partetik.



Zorionak **Oinatz Sarratea Arretxeari!** Maiatzaren 27an 4 urte beteko dituzu eta arras ongi pasatu zure eguna! Hasi indarra hartzen kandelak itzaltzeko. Muxu erraldoi bat familia guziaren partetik, baina bereziki zure anaia Julenen partetik.



Berriz ekainaren 6a ate joka, ai ai ai ama, urteak joan dira saltoka... Aunitz urtez **Ekaitz!** Zurekin ospatuko dugu, pastela zuk prestatu eta probatzea gure kontu!



Aunitz urtez **Beñat!** Ekainaren 11n urtea beteko duzulako. Muxu asko familia osoaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko dugu webgunean, baita hurrengo aldzkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez [TTIPI-TTAPAN](http://ttipi-ttapan.eus)en bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz 0,65 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia.
- (4) [ERRAN.EUSEN](http://erran.eus) bitartez.

SORTZEAK

- **Saint Fonseca Oliveira**, Goizuetakoa, apirilaren 30ean.
- **Aner Irazu Aragon**, Igantzikoa, maiatzaren 9an.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du. Nahiago duenak Whatsappez ere idatz dezake: 744 48 43 61.

DENBORA-PASAK

Letra-zopak

E	J	A	I	N	P	A	D	A	R
B	A	D	O	E	K	I	E	T	Z
B	N	D	S	U	K	R	T	S	A
A	A	I	M	O	I	A	X	Ñ	I
S	R	R	U	E	T	A	I	T	N
U	I	U	A	E	M	G	P	M	Z
R	I	L	R	T	E	O	O	U	U
D	T	A	E	P	Z	Z	R	R	R
E	X	G	R	R	U	E	B	I	I
E	I	U	R	O	R	R	U	A	A
Z	A	N	O	S	T	A	R	R	U
O	L	T	L	I	P	L	U	U	N
S	D	Z	D	K	A	R	A	T	N
B	I	A	A	Z	T	I	A	K	E
E	Z	G	D	E	N	D	A	R	I

BARATZE
BASURDE
DIRULAGUNTZA
ERROLDA
JANARI
AURPEGI
MEMORIA
XARETA
EKAITZA
ORBURU
URRATS
ZAINZURI
ITXIALDI
URRUN
DENDARI

www.euskal.info


Hieroglifikoak



Euskal Herrian
asko daude...



Ongarri gisa
erabiltzen dena.



Hauek? Ez,...

Sudokuak

4					5			9
	6		9	7			4	
7				8				2
8				2		5	9	
		4				6		
	7	3			1			4
1				9				7
	5			4	3		2	
2			5					6

				7				1
1	5	9	8	4			3	
4	2					8		
				2		9	6	
		5				7		
	8	3		6				
		1					5	2
	9			7	4	3	8	6
6					3			

	8		5					1
	6			8		5		
4				2			8	
	9			7	5		1	4
8			3					6
6	4			1			9	
	7			9				5
		8		5			6	
5					7		4	

www.sudoku.name

Erruleta

Hitza asmatu behar dugu. Horretarako, definizioa eta hitzaren amaiera emango zaigu.

...ARRA. Arriskuari ihes egiten diona. Ausartaren aurkakoa. ...ARRA._____	...ARRE. Poz bizia eta bat-batekoa adierazten duten aurpegiko giharren mugitze berezia. ...ARRE._____	...ERRI. Gorputzeko parte bat. ...ERRI._____	...ARRU. Eremu mugatu edo itxia. ...ARRU._____
...ERRA. Bakearen aurkakoa. ...ERRA._____	...ERRE. Etxera berandu heltzen banaiz, gurasoak jarriko dira... ...ERRE._____	...ERRI. Norberarena ez den herria. ...ERRI._____	...ORRU. Jasan ezin den haserrea. ...ORRU._____
...ARRI. Edateko beharra edo nahia. ...ARRI._____	...IRRE. Laralarala, abila dela... ...IRRE._____	...URRI. Gaiztakeriak egiten dituen, esanekoa ez dena. ...URRI._____	...ERRA. Uzkitik kanporatzen den haizea. ...ERRA._____
...ORRA. Itsasoko zenbait animaliak erabiltzen du babesteko. Donostian, badira urrezkoak ere. ...ORRA._____	...ORRE. Eraikin luzexka. ...ORRE._____	...ARRO. Croissant formako krustazeoa. ...ARRO._____	...ERRO. Norabide berean jarririk dauden pertsonen edo gauzakien segida. ...ERRO._____
...URRA. Oskorrik kantatzen duen melodia alaia. Bertsotarako doinua ere badena. ...URRA._____	...ARRA. Metal zuri distiratsua. ...ARRA._____	...ORRO. Jantzi, beste norbait izateko. ...ORRO._____	...URRI. Luzera, azalera, bolumena edo kopurua. ...URRI._____
	...ARRI. Urduri. ...ARRI._____	...URRU. Ahoz aho dabilen berria. ...URRU._____	...ARRA. Izotzeko bola. ...ARRA._____

bertsoikaskela.eus

7 desberdintasunak

Aurkitu zazpi desberdintasun irudi hauetan.



Miriam Arregi - @haya.eus

PLAZAN BAZAN



ENGAINAGARRIAK



Zati hauetatik erdiak goiko irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainagarriak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu bost onak eta bost txarrak.

Marrakziak: Garbiñe Ubeda (Aizuri)



MEZUA





Poto barneko erlea arras kontent dago!
Zer dio?
Paratu iruditxo bakoitzaren azpian
dagokion hizkia eta asmatuko duzu.



...ETA ORAIN ZAZPIKOA

Buruz behera tente jartzea uste baino arriskutsuagoa da.
Hemen, errate baterako, zazpi elementu aldatu dira.
Ikusten al dituzu?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttiti Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

758 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Wow Park

wowpark.fr



2 sarrera

IRRISARRI LAND

www.irisariland.com



2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



2 lote



- Zank & Zoe, bi liburu
- Kixotenean eta Sasieskola

elkar

www.elkar.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



<http://wowpark.fr>



www.mendukilo.com